

artoka



**HEDATZEN ARI
DEN PROZESUA**

— **P**roletalgoaren proiektu askatzailea, komunismoa, ez da gauzen uneko egoeraren ukazio soila, nahiz eta modu horretan adierazten den klase antagonikoen arteko borroka. Positiboki irudika genezakeen errealitate berri bat ere bada, eta nahiaren eta borondatezko militantzia politikoaren bidez adieraz dezakeguna bereziki.

Hori izan da iraultzaile komunisten handitasuna: proletalgoaren askapena gauzatu nahia, aurkitzen den lekuan aurkitzen dela. Eta nahi hori ikur bat eta bakarrarekin adierazi zuten, gurea ere baden ikurra: bandera gorri bat, komuniston bandera.

Edukia

6

10

32

44

EDITORIALA

Arteka

Bandera gorri bat

ELKARRIZKETA

Paula Villegas eta
Gonzalo Gallardo,
Madrilgo Encuentro
por el Proceso
Socialistako
militanteak

«Dena dugu egiteko»

ELKARRIZKETA

Natàlia Ciurana,
Horitzó Socialistako
militantea

*«Independentzia politikoa
hedatzea da mugak
gainditzeko gakoa»*

ERREPORTAJEA

Jon Kortazar

**Internazionalismoa
eta haren garrantzia:
II. Internazionalaren
sorburua**

Bandera gorri bat

Editoriala

Komunismoaren izaera internazionala halabeharrezkotasun pisutsu bat bailitzan eta kausa-efektua alderantzikatatuta aurkeztu da sarri: etsaia mundu mailan antolatuta dago eta, ondorioz, guk ere hala behar dugu. Askatasunaren lurraldea eraikiko duen mugimendu politikoak, baina, printzipio askatzaileagoetan formulatu beharko luke bere egitekoa. Horrek ez du esan nahi gure praktikaren izaera objektiboa aztertu eta ezagutu behar ez dugunik; jakin badakigu gure gaitasunen eta aukeren ezagutza dela komunistontzat askatasunaren printzipioa definitzen duena. Alabaina, gure antolakuntza maila etsaiarenean sostengatzen dugunean, hau ahazten ari gara: etsaiak ere gure gaitasunen arabera moldatzen duela bere antolakuntza maila eta gure nahiei aurre egiteko antolatzen dela.

Nahi horiek balioan jartzea garrantzitsua da, etsaiaren nahiek irentsi ez gaitzaten. Gure pobrezia gure konbikzio komunista baldintzatu eta azaldu dezake akaso, baina ez du inondik inora ere justifikatzen. Beste zerbait ere izan gintezke, baina komunistak izatea erabaki dugu. Proletarizazio prozesuak berak ez du komunismoaren etorrera justifikatzen –aukerak zabaltzen ditu, hau da, askatasunaren printzipioa argitu egiten du–; komunismoa gure obra handia izan behar da, ez etsaiarena.

Gure pobreziak gure konbikzio komunista baldintzatu eta azaldu dezake akaso, baina ez du inondik inora ere justifikatzen. Beste zerbait ere izan gintezke, baina komunistak izatea erabaki dugu. Proletarizazio prozesuak berak ez du komunismoaren etorrera justifikatzen –aukerak zabaltzen ditu, hau da, askatasunaren printzipioa argitu egiten du–; komunismoa gure obra handia izan behar da, ez etsaiarena

Ezbairik gabe konplexua da beharra eta nahia-
ren arteko harremana. Esaten digute ezin dugula
nahi dugun guztia egin, baina, ezingo balitz egin, ez
genuke nahiko. Egingarri den guztia ez da desira-
garri. Beharra borondatez gauzatu beharreko pro-
zesua da, borondate horren forma determinatzen
duena. Eta borondateaz ari garenean, jakina, an-
tolakuntzaz ari gara, eta antolakuntza horrek bere
helburuak konkistatzeko hartu beharreko formaz.

Horregatik, zaila da hasieran aipatutako pen-
tsamendu ziklikotik harago pentsatzea. Etsaia in-
ternazionalki antolatuta dagoelako antolatu behar
gara hala gu ere; baina hori baino gehiago, etsaia
internazionalki antolatuta dago proletalgoa eta ko-
munismorako aukerak ere internazionalak direla-
ko. Eta gure nahia hau da: askatasun unibertsala
konkistatzea, zapalkuntza forma oro gainditzea
eta gure bizitza beste modu batean antolatzea. Eta
aukera hori gizaki guztiei eskaintzea. Eta orain po-
sible dugu.

Posible dugu, kapitalismoaren garapenarekin
batera ate hori ireki delako. Baina garapen hori ez
dugu modu instrumental batean ulertu behar. Ga-
rapena ez da eskura ditugun bitarteko materialen
aniztasun oparoa, ezta horien gaitasunen handitze
soila ere. Soldatapeko lanaren abolizioa ez datza
makinek gure ordez lan egitean; hala balitz, maki-
nena litzateke mundua eta horrek ez luke inondik
inora proletalgoaren askatasuna ekarriko.

Kapitalismoak ez ditu bitarteko fisiko soilak
sortzen eta garatzen. Kapitalismoak giza-harre-
manak garatzen ditu, ekoizpen-harremanak edo-
ta ekoizpen-indarrak, eta horrek irekitzen du bere
gaindipenerako aukera. Aukera hori ez datza indar
mekanikoen garapenean, gizateriaren garapen de-
terminatu batean baizik. Eta maila internazona-
lean gertatzen da hori.

Gure proiekturako baldintza ez da soilik etsaiak
modu kontzientean hartutako antolakuntza-eskala,
hau da, etsaiaren gaitasun politikoa, kapital-harre-
manaren garapenarekin batera sortutako gizatasun
berri hori baizik –proletalgoa–, oraino modu mise-
rablean garatu dena baina miseria horretan aurki-
tzen duena askatasun unibertsalerako aukera.

Proletalgoa, gizarte kapitalistaren produktua,
gizatasunaren etorkizuna berma dezakeen klase
sozial bakarra da eta horren aukerak bere baitan
aurkitzen ditu. Izan ere, gizatasun unibertsalera-
ko aukera berekin jaiotzen da; klase internazonala
delako, baina, bereziki, internazionalismoa eta ba-
tasun sozialaren ulerkera berekin jaiotzen delako,
lehenengo aldiz lortzen duelako proletalgoak giza-
terriaren parte handi bat gizarte berdinen parte
izatea, interes komunekin eta gehiengo zabalaren
hoberako izan daitezkeen interesekin. Horretan da-
tza bere gizatasuna eta bere eraikuntza positiboa.

Gure proiekturako baldintza ez da soilik etsaiak modu kontzientean hartutako antolakuntza-eskala, hau da, etsaiaren gaitasun politikoa, kapital-harremanaren garapenarekin batera sortutako gizatasun berri hori baizik –proletalgoa–, oraino modu miserablean garatu dena baina miseria horretan aurkitzen duena askatasun unibertsalerako aukera

Sarri alderantziz aurkezten den arren, soilik komunismoaren aukerak eta proletalgoaren izaera internazionalak egiten dute posible gizarte kapitalistaren gaindipena; erorketarako joera mekaniko batekin ez da nahiko, ehorzleak eta subjektibitate modu bat ere ekoiztu behar ditu errealitate sozialak, borondatearen eta proiektu politikoaren forma hartzen duena

Indar positibo hori erabat neutralizatzen da proletalgora nazio-estrategia desberdinen arabera antolatzen denean. Izan ere, nazionalismoak proletalgoraren kontzeptuaren aurka egiten du; bere funtzio politikoa –kapitalismoaren gaindipena– desitxuratzten du, bere unibertsaltasuna ukatuz, eta metaketa kapitalista nazionalaren aldeko borrokara lerratzen du proletalgora.

Alta, proletalgoraren askapena eta gizarte kapitalistaren gaindipena baditugu helburu –biak ala biak dira eraikuntza komunistaren produktu–, antolakuntza inplikazio zuzenak ditu horrek. Etsaia internazionalki antolatuta dago, bai, baina proletalgora munduko txoko guztietan aurkitu dezakegulako da hori. Eta leku guztietan egote horrek, egotea baino gehiago, egitea dakar: proletalgorak funtzio sozial bat du klase gisa, eta soilik klase bat den heinean –eta ez norbanakoen multzo abstraktu bat– ebatzi daiteke proletalgoraren funtzio soziala gainbalioaren eta kapital-harremanaren ekoizle gisa. Funtzio horrek egiten du bere batasun politikoa ezinbesteko, funtzio hori bera gainditu ahal izateko.

Sarri alderantziz aurkezten den arren, soilik komunismoaren aukerak eta proletalgoraren izaera internazionalak egiten dute posible gizarte kapitalistaren gaindipena; erorketarako joera mekaniko batekin ez da nahiko, ehorzleak eta subjektibitate modu bat ere ekoiztu behar ditu errealitate sozialak, borondatearen eta proiektu politikoaren forma hartzen duena.

Mugimendu komunistaren XX. mendeko esperimentzietan, horren adibide nahikoa dugu. Boltxebikeentzat internazionalismoa ez zen etsaiak inposatutako antolakuntza marko soil. Alemaniako iraultza, esate baterako, ez zen Errusiako iraultza sozialista indartzeko baliabide subordinatu bat. Kontrara, Errusiako iraultzak Alemanian iraultza piztea eta egonkortzea zuen helburu.

Kolonietako askapen borroka edo antikolonialismoa ez ziren herrialdeotan komunismoa posible egingo zuen garapen «ekonomikoa» bermatzeko baliabide soil. Herrialde zapalduen askapena, testuinguru horretan, komunisten behar etikoa zen eta komunismoak hori esan nahi zuen.

Errusiako iraultza bera ez zen posible izango «baldintzen» aurrean makurtzen ez den askapenaren etika komunistarik gabe. Mentxebikeen azterketa ekonomikoaren arabera, ez zegoen baldintzarik iraultza abiarazteko; beharrezkoa zen Errusian kapitalismoaren berezko garapen bat izatea. Boltxebikeek erakutsi zuten, aldiz, errealitate ekonomikoa aztertzea ez dela zientzia ekonomiko kapitalistan bezala azterketa instrumental bat gauzatzea, harreman sozialen eta proletalgoraren gaitasun politikoaren azterketa egitea baizik.

Zentzu horretan, proletalgoraren proiektu askatzailea, komunismoa, ez da gauzen uneko egoeraren ukazio soil, nahiz eta modu horretan adierazten den klase antagonikoen arteko borroka. Positiboki irudika genezakeen errealitate berri bat ere bada, eta nahiaren eta borondatezko militantzia politikoaren bidez adieraz dezakeguna bereziki.

Hori izan da iraultzaile komunisten handitasuna: proletalgoraren askapena gauzatu nahia, aurkitzen den lekuan aurkitzen dela. Eta nahi hori ikur bat eta bakarrarekin adierazi zuten, gurea ere baden ikurra: bandera gorri bat, komuniston bandera. ●

«Dena dugu egiteko»

Paula Villegas eta Gonzalo Gallardo,
Madrilgo Encuentro por el Proceso
Socialistako militanteak



2 010-2020 hamarkadan garatu zen eta hurrengo urteetan hedatu zen borroken zikloa oso ziklo interesgarria da gizarte-mugimenduek beren dimentsio politikoan dituzten mugetako batzuk aztertzeke, baita Estatua eta sozialdemokrazia krisi-garaietan proiektatzeko gai diren formekin mugimendu horiek duten lotura aztertzeke ere. Bestalde, ziklo horrek oso ondo erakutsi du mugimendu komunistak Espainiako Estatuaren esparruan izan duen erabateko porrot egoera, bere joera eta antolakunde desberdinek ziklo horretan gertatu ziren fenomeno sozial eta gertakari politiko desberdinen aurrean emandako era askotako erantzunekin (eta beti fruiturik gabe).

2010-2020 aldia borroka-ziklo bat da, kale-mailan adierazkortasun mobilizatzaile handia izan zuena, gutxienez, bertatik sortu ziren adierazpen politiko batzuk instituzionalizatu ziren arte. Horrela, 2010eko eta 2012ko greba orokor handiekin hasi zen hamarkada. Sindikatu handiek protestekin bat egin zuten eta Europa mailan koordinatu ziren, eta, bitartean, ikasleen grebek eta osasun-grebek testuingurua tenkatu zuten hainbat eremu zehatzetatik. Ziklo horren epizentroa M15ean dago 2011n. «Suminduek» («*Los Indignados*») plazak hartuz, 2012ko «Kongresua inguratu» («*Rodea el Congreso*») bezalako gertaerek edota 2014ko «Duintasunaren Martxek» («*Las Marchas de la Dignidad*»), urte horietan garatu ziren dimentsio eta borroka-adierazpen oso indartsuekin eta ezberdinekin, erakundeen ordezkaritza-krisiaren atsekabe orokorra eta sakontasuna adierazi zituzten hainbat angelutatik.

Adibide horiek, esan bezala, nahigabe sakona adierazten zuten 2008ko krisiaren ondoriozko egoera ekonomikoagatik eta Espainiako Estatuko sistema politikoaren eraketagatik; izan ere, hasiera batean, egoera zehatz horri erantzuteko gaitasun eza egozten zitzaion, baina hori aurkartzeko orokor moduko bat bihurtu zen pixkanaka. Une horretan, zenbait antolaketa-esperientzia agertzen hasi ziren, eta gizarte-mugimendu handiei forma ematen hasi ziren, gerora behin betiko forma hartuko zutenak; hala nola, etxebizitzaren aldeko mugimendua, mugimendu feminista edo mugimendu ekologikoa. Jatorri askotako sektoreak bildu ziren horietan: anarkismo sozialetik eta autonomiatik hasita, Espainiako

ezkerraren adierazpen klasikoekin kritikoak ziren sektoreetaraino, udalgintzaren, Latinoamerikako kutsuko populismoaren eta abarren inguruan egiten ziren apustu berrieekin. Horrek borroka-ziklo oso heterogeneo eta lauso bat ekarri zuen, non klase ertainen programa politikoa harremanetan hasi zen askoz politizatuagoak ziren antolakundeekin.

Gainera, mugimendu okupa edo antifaxista bezalako mugimenduak ere biziberritu ziren nolabait. Mugimendu horiek pisu handia zuten (historikoki) hiri jakin batzuetan, eta berriz ere indarra hartu zuten eta loturak sortzen hasi ziren eratzen ari ziren mugimendu berrieekin. Horrek guztiak sortu zuen testuinguruan, oinarri militante nahiko zabalak zituzten espazioak elkarrekin bizi ziren, mobilizatzeo gaitasun nabarmenarekin, eta gero eta ondoez handiagoa zuten gizarte-geruza jakin batzuekiko loturarekin. Hala ere, zerumuga estrategiko argirik ez egoteak, adierazpen horiek, gehienetan, aldi baterako eta elkarren segidako sumindura-adierazpen hutsetatik harago ez garatzea ekarri zuen. Testuinguru horretan sartu zen bat-batean Podemosen fenomenoak, M15ari eta horretan parte hartzen zuten sektore politiko batzuei lotuta.

Gertaera horrek egoera sozialdemokrata argitzen lagundu zuen. Sozialdemokraziaren ezker hegalek (Partido Comunista de España eta Izquierda Unida) Podemos esperientzia populista berriarekin bat egitea erabaki zuen, hautesle «ezkertiar» zaharrak eta hautesle «sumindu» berriak batzeko ahaleginean. Bloke horrek gizarte-mugimenduekin zuen harremanak zenbait interes-puntu planteatu zituen. Mugimendu horiek 2010az geroztik planteatutako eskari

asko (hasieran behintzat, «erradikal-tasun» handiagoko uneetan) bloke horrek bereganatu zituen, eta neurri handi batean mediatikoa zen interes-batasun bat proiektatzea lortu zuen, antolakunde horien ahalmen politikoa agenda politikoan eta Estatuan integratuz joatea lortu zuena. Hori indartu egin zen lehen aipatutako mugimenduetako erreferentziazko koadro batzuk erakarrira eta integratuta, herri mugimenduaren (eta haren eskarien) eta hauteskunde-planteamendu berriaren arteko jarraitutasuna irudikatzea lortu baitzuten. Une horretatik aurrera, bi espazioen arteko harremana oso konplexua eta irregularra izaten hasi zen, sinergikoa une batzuetan, baina tentsio handikoa besteetan (une horietan, nabarmen geratzen zen hauteskunde-apustu horrek benetan egikaritzeko zeukan ezintasuna).

Independentzia politikoa lortzeko ezintasunetik datoz mugimendu politikoaren mugak, eta sozialdemokrazia populista berriaren agenda politikoaren mendeko eta meneko bihurtzen ditu horrek. Sektore militante ezkertiarrenak bakarrik kritikatu dute agenda hori, eta modu koiunturalean baino ez. Nolanahi ere, apustu sozialdemokrataren ezintasun edo bideraezintasun nabarmena gora-behera, mugimendu sozialak beren mugen barruan mantenduko dira, eta mugimendu horren lan instituzionaletik ondorioztatzen diren apurrekin konformatuko dira. Aliantza-oposizio dinamika hori aurreko gertakarietatik hasi zen agertzen, baina urte hauetan zehar hobetzen eta sendotzen joan da, eta horri esker lortu da ehun militante horren barruko pultsio iraultzaile orori eustea.

Bitartean, mugimendu komunistentaren borroka-espazio tradizionaletik lekualdatze-prozesu baten ondoren, non fabrika-langilea (subjektu politiko nagusia) pixkanaka zentro inperialistako ekoizpen-prozesuetatik kanporatua izan zen, sindikatuak langile klaseko sektore jakin batzuetara bideratutako egitura burokratikoan mailaraino hustu ziren, bloke sozialista desegin ondoren; erakunde komunistak, oro har, hiltzeko prest ez dagoen iraganeko hondar gisa ikusiko ziren.

Erabateko porrot egoera horren eta ziklo iraultzailearen itxieraren aurrean, estrategia komunista birtuesatzeko beharra jarri zen mahai gainean, baina emaitza handirik gabe. Sektore batzuek seinatu zuten komunismoaren ezintasuna haren zatiketan datzala, eta Alderdia «berrekitzearen» alde egin zuten. Beste batzuek 1917ko Urriko Iraultzak hasitako ziklotik oinordetzan hartutako mugak adierazi zituzten, eta balantze historikoaren prozesu agortezinak hasi ziren, Alderdia «berrerratzeko» helburuarekin. «Ezkerreko» hautagaitza zabalagoetan, hautagaitza «nazional-popularretan» edo hautagaitza «antikapitalistetan» parte hartzea erabaki zutenak ere izan ziren; izaera elektoralista eta parlamentarista nabarmena zuten hautagaitza horiek. Eta, azkenik, aurreko mendeko eztabaida zaharrek oinordetzan utzitako eta aurrez aurre jarritako estrategietan arrakastarik gabe jarraitu zuten beste antolakunde batzuk ere izan ziren, hala nola, trotskistak, prosobietarrak, albaniarren aldekoak, protxinatarrak edo ezkerreko komunistak.

Porrot eta errefluxu testuinguru horretan lehertu zen 2008ko krisia, eta horrek gatazka sozial handiko garai bat ireki zuen nazioartean (Is-

landia, udaberri arabiarrek, *Occupy Wall Street*, eta abar), baita Espainiako Estatuan ere. 2010eko azken greba orokorrak, etxebizitza mugimendua-ren lehen urratsek eta gazteen sektore zabalek, krisiak bizi-itxaropenak zapuzten zizkiela ikusita, ekimenak eta protestak bultzatu zituzten, eta berehala kutsatu ziren beste esparru batzuetara: jubilatutak, osasun-langileak, irakasleak, eta abar. Goi-goi mailako kastak berak ere kapitalismoaren amaiera iragartzen zuen, eza-gutu genuen bezala, behintzat. M15a, *mareak*, Hipotekak Kaltetuen Plataformak (PAH), «Kongresua Inguratu» eta «Duintasunaren Martxak» izan ziren mobilizazio horien emaitzak, eta atzean utzi zituzten egunkariak, gizarte-zentroak, kooperatibak, argitaletxeak, asanbladak eta abar.

Beste saiakera askoren artean, gizarte-asaldura hori antolakunde komunista batek baliatu zuen, Ezker Antikapitalistak. Joera trotskistako antolakunde horrek lehenengo Podemos bultzatu zuen, baina eszenaren erdigungea hainbat esparrutako pertsona ospetsuei eman zien, hala nola, eremu akademikoari; horiek, azkenean, alderdi sortu berrian hegemoniko bilakatu ziren, lurralde gutxi batzuetan izan ezik. Horrela, abangoardia ilustratu eta erreformatzaile batek, batez ere Latinoamerikako marea arrosaren esperientzietan inspiratua, Estatuko egoera instituzionala hauteskunde-gerrarako makineriarekin ezegonkortu zuen. Hala ere, antikapitalistek aukeratutako bideak ez zuen ekarri haien antolaketa nabarmen indartzea. Podemosen bigarren mailako rol batera lekualdatuak izateagatik, Greziako esperientziak bere planak desegin zituelako edo hauteskunde-makineriak militantzia erregai gisa kontsumitu zuelako, populismoarekin

antolakuntzan ia hamarkada bateko abenturaren ondoren, ordezkari politiko batzuk, finantzaketa eta egitura eskas bat baino ez ziren geratu. Horregatik, azken hilabeteetan, Ezker Antikapitalistako hainbat pertsonak azken urteetan izandako esperientziari eta estrategiari buruzko hausnarke-ta-prozesuari ekin diote.

Podemosek estatuko panorama politikoan izan zuen agerpenean, lehenik lehiakide gisa parte hartu zuten, eta, ondoren, kolaboratzaile gisa, IUko erakunde komunista batzuek. Batzuk Podemosen sartu ziren, eta beste batzuek, berriz, ontzia utzi zuten, lehenago edo geroago, zarata handiagoarekin edo txikiagoarekin, IUren kanpoaldean zeuden sigla ugariekin bat eginez. Aipatu dugun bezala, sozialdemokrazia populista berriaren integrazio-prozesu arrakastatsua ikus dezakegu, PCEn eta IUn hezurmitutako sozialdemokrazia zaharraren alderik ezkertiarrena duena. Latinoamerikako inspirazioko populismo erradikala proiektu eurokomunistaren erabateko porrotari jarraipena emateko irtenbide gisa agertu zen; izan ere, Espainiako Estatuan ez zen gai izan 2008az geroztik sortu zen sumindura politikoaren dinamika artikulatzeko. Joera hori berdin-berdina da gure inguruko beste herrialde batzuetan, adibidez, PCFren eta Melenchón esperientziaren arteko harremanarekin. M15-Podemos fenomenoaren gurdira igo ziren antolakunde komunista horien barruan, populartasuna ardatz zuten estrategiak nagusitu ziren, Gramsciren figuraren erabilera erreformista egiten zutenak, bertsio eurokomunistetan, populistetan edo antikapitalistetan. Horrela, klase-independentziari uko egiten zitzaion, estrategia sozialistaren printzipio politiko gisa.

Estatu burgesaren logika instituzionaletan berehala integratu ziren esperientzia horiez gain, bai estatu mailan, bai udal mailan, gainerako talde komunistek ez zuten «rol protagonikorik» izan ziklo politiko horretan. Hala, lehendik zeuden antolakunde independenteek (PCPE, PCOE, CRT, eta abar) ez zuten hobe-kuntza handirik izan beren gaitasunetan: batzuek haustura-prozesuak bizi izan zituzten, eta beste batzuk, berriz, batasun-prozesuekin saiatu ziren, arrakastarik gabe. PCTE, duela lau urte sortutako PCPEren zatiketa, estatuan ekimen eta garrantzi handiena izan duen antolakundea izango da ziurrenik. Nolabaiteko ospea izan duten beste talde komunista batzuk Berreratze Lerroa (*Línea de Reconstrucción*) eta PML (RC) dira. Lehenengoak, nahiz eta 90eko hamarkadan hasi zuen bere ibilbidea, hazkunde nabarmena izan zuen 2015 eta 2019 artean, Urriko Zikloaren balantzearen inguruan bi lerroko borrokaren bidez komunismoaren berreraketa ideologiko eta politikoa egiteko proposamenarekin; plan horrek esan nahi du bere jardura politikoa nagusiki teoria eta propagandistikoa dela, mugimendu espontaneoetatik kanpo kokatuz. Bigarrena, PCEko eta PCPEko militanteek 2009an sortutakoa, Siria-ko gerra inperialistan bere militante batzuen aurkako prozesu errepresibobaten bidez ezagutarazi zen. Gaur egun, aurreko antierrebisionismo hoxhaista esplizitutik urrun dagoen diskurtso obrerista eta subiranistabaten bidez, nolabaiteko irismena duten komunikabideak sortu ditu. Talde horiek guztiak M15-Podemos ziklo politikoaren mugimendu nagusitik kanpo kokatu dira, dela mugimenduen klase osaketagatik, dela ideologia hiritarzale eta demokratistagatik,

dela antolakunde komunista horiek garaiko espazio politikoetan jardura garrantzitsu bat garatzeko duten gaitasunik ezagatik.

Aski ezaguna denez, 2008ko krisiaren ondoren hasitako protestak Podemosen instituzionalizatzearekin baretu ziren. Hala ere, mobilizazio berriak sortu ziren; murrizketa, soldaten jaitsiera eta makurtze olatuaren ondoren, proletariotzak jasaten jarraitzen zuen astinduen berri ematen zutenak. Mugimendu feministak eta *procés*-ak, neurri batean, ematen zuten horren berri. Bi gertaera horiek Espainiako Estatuko komunistak behartu dituzte nolabaiteko arretaz garatzera tradizio komunistaren bi gai klasiko: nazio auzia eta emakumearen auzia. Lehenengo kasuan, austromarxisten, leninisten, luxenburgotarren eta berrikuntza handirik gabeko askapen nazionaleko mugimenduen posizio klasikoetara jo da. Bigarren kasuan, marxismoaren jarrera tradizioaletara jo da, baina baita feminismo materialistetara, sozialistetara, marxistetara, proletarioetara eta abarretara ere, eta horrek aplikazio sortzaile batzuei eman die bide antolakundeen barruan.

Nor zarete eta nondik zatozte?

Hainbat jatorritako militanteek osatzen dute Encuentro por el Proceso Socialista (EPS). Militante horiek koiunturara egokitzen den estrategia sozialista eguneratzeko gai izango den Mugimendu Sozialista bat eraikitze-ko konbikzioa dute, eta helburu dute gaur egun ditugun erronka politikoei aurre egiteko gai izatea eta Kapitalaren botereari eta Estatuari, egun eratuta dauden moduan, aurre egingo dien ziklo iraultzaile berri bat bultzatzeko egoeran egotea. Gure mugimendua osatzen duten gazteak militantzia komunistetatik, anarkistetatik, autonomoetatik eta abarretatik datoz, eta mugimendu sozialetan parte hartutakoak dira, hala nola feminismoan, antifaxismoan, etxebizitzaren aldeko borroketan eta abarretan. Gazte horiek espazio horien berezko logikak hautsi dituzte, egungo testuinguruak aurrerapauso bat ematea eta orain arte gure borrokek erakutsi dituzten muga guztiak gaingaituko dituen politika bat garatzea eskatzen duelako.

Uste dugu osaera horrek ordezkatzen dituela bizitzen ari garen une historikoa eta esku hartzen ari garen koiuntura berezia; haren ezaugarri nagusiak komunismoaren porrot historikoa, erakunde iraultzaile indartsurik eza, kultura politiko zatikatua eta proletalgoak subjektu gisa duen deskonposizioa dira. Egoera horrek azken hamarkadan nabarmendu diren esparru politikoetan parte hartzera eraman gaitu, eta orain horien mugak mahai gainean jarri nahi ditugu, horiek gaingaituko dituen Prozesu Sozialista baterantz aurrera egiteko. Nahiz eta gure militantzia jatorri askotarikoa izan, alderdi garrantzitsuenetako bat da horietan guztietan antzerako moduan identifikatu genituela gaingaitu nahi genituen muga batzuk eta premia politiko batzuk, eta, zehazki, jabetu ginen horiek konponatzeko modu bakararra martxan jarri nahian ari garen eskala handiagoko

Itxuraz elkarrengandik oso urrun zeuden tradizioetatik etorri arren, denok identifikatu genuen ziklo politiko baten amaiera eta prozesu berri bati ekiteko beharra antzuak ziren esperientzia politikoei eta sozialdemokraziaren hegemoniari aurre egiteko

antolaketa-prozesu batean murgiltzea zela. Bestela esanda, itxuraz elkarrengandik oso urrun zeuden tradizioetatik etorri arren, denok identifikatu genuen ziklo politiko baten amaiera eta prozesu berri bati ekiteko beharra antzuak ziren esperientzia politikoei eta sozialdemokraziaren hegemoniari aurre egiteko. Izan ere, sozialdemokraziak ordura arte mugitu ginen dinamika politiko asko barnean hartu eta artikulatu zituen.

Jatorri-aniztasun hori gure jatorrizko mugimendu, espazio eta sareen osaeraren eta militantziaren egoeraren ondorio ere bada. Izan ere, beste lurralde batzuetan ez bezala, Madrilén, hobekien ezagutzen dugun adibidea erabiltzeagatik, militantzia-ehuna ia ezerezera murriztu da azken urteotan; antolakuntza-dentsitatea minimoan geratu da. Horrez gain, eta aurrekoarekin guztiz lotuta, kultura eta praktika militantea guztiz marjinalak ziren, eta zirkulu oso txikiak zeuden murriztuta; bi faktore horien ondorioz, une hartako gure mugimenduen mugak gaingaitzeko zenbait intuiziotan eta proposamenetan bat egiten genuen gazte bakanok elkartu egin ginen, identifikatuta sentitu ginen eta bat egin nahi izan genuen hara eraman gintuzten logiken eta dinamiken autokritika egiteko prozesu batekin.



Eta zein da EPSren jatorria? Nola sortu zen?

Hainbat sektore gure lehengo militantzia-esparruetan autokritika-prozesuetan murgiltzen ari ginez, korrante politiko desberdinen arteko topaketa-prozesu bat hasi zen, estrategikoki eta antolakuntzari dagokionez hainbat proposamen eztabaidatzeko asmoa zuena, batez ere gazte militanteen artean. Prozesu hori modu paraleloan izan zen Burgosen eta Madrilen, eta gero Valladolideko beste sektore batzuk gehitu ziren. Prozesu horretan, korrante politikoen arteko eztabaida zintzoak eta konfrontazio ideologikoak pisu nagusia izan dute beti, kontuan izanik askotariko jatorrietako kideak ditugula; hala ere, horrek ez zigun eragotzi posizio sozialistetarantz politikoki elkarrekin aurrera egitea.

Hala, topaketa- eta hausnarke-ta-prozesu horren barruan, hainbat taldek bat egin genuen ekonomia politikoaren kritikaren (EPK) aldeko apustua egiteko ideiarekin, gure prozesuari hasiera emateko marko komun gisa. EPK aztertzea, orduan, baliagarria izan zitzaigun mahai gainean jartzen ari ziren proposamenak aztertzeko marko komun bat sortzeko, eta oraindik ere baliagarria da. Zentzu horretan, EPKren azterketan sakontzearekin batera, Euskal Herriari Mugimendu Sozialistaren (MS) garapena oso interesgarria iruditu zitzaigun, eta kapitalismoaz guk genuen azterketa kritikoa batzen hasi ginen mugimendu berri horrek egiten duen tesi eta proposamenen eztabaida sistematiokoarekin eta gure garaira egokitutako estrategia sozialista berri-tuaren alde egiten duen apustuarekin. Orduan, areagotu egin zen berrosatze ideologiko eta politikorako prozesua, eta agerian geratu zen hainbat sektorek apustu sendoa egiten genuela tesi horiei gure lurraldeetan jarraipena emateko eta horiek egia bihurtzen saiatuko zen antolaketa-prozesu bati ekiteko.

Orduan aurkeztu genuen EPS, mahaira ateratako tesi sozialista berrietan interesa duten militanteen arteko espazio ireki eta topagune gisa planteatua. Gure apustua da prestakuntza jasotzen jarraitzea eta gure gaitasun kolektiboak handitzeko beharrezkoak diren eztabaidak izatea. Espazio horretan, gaitasun militanteak eraikitzen joango gara, agertzen diren erronka guztiei erantzuteko eta gero eta eskala handiagoan antolakuntza-prozesu bat abiatzeko, gure lurraldeetan MS bizi eta indartsu bat eraikiz. Oraingoan, Madril, Burgos eta Valladolid dira lurralde horiek, eta kasu bakoitzean bizitzen ari diren egoera berezia gorabehera, oso prozesu berdintsua izan dute gaur egunera arte. Prozesu hori, bide batez, arreta pizten ari da, eta modu interesgarrian garatzen ari da inguruko beste hiri batzuetan. Gure ustez, horrek agerian uzten du mahai gainean jartzen ari garen zenbait gairen baliozkotasun orokorra; hau da, gai horiek ez dagozkiola lurralde baten berariazko ezaugarriari eta haren idiosinkrasia espezifikoari, eta, kontrara, gai orokor eta komunak direla.


Zer balio eta garrantzi dute M15ak edo mugimendu sozialen olatuak zuen sorrera politikoa?

Garrantzi oso handia dute M15 mugimenduko prozesuak eta duela hamarkada bat baino gehiagotik gure lurraldeetan indarra hartzen ari diren mugimendu sozialen olatuak. Gogoan izan behar da gure militante gehienak oso gazteak ginela M15a piztu zen unean, eta oso azaletik edo ikusle huts gisa hartu genuela parte gertaera horietan. Hala ere, une hori oso garrantzitsua da guretzat, neurri handi batean esan baitaiteke M15a eta horren berehalako ondorioak lehen urrats handia izan zirela gure belaunaldiko pertsona askoren politizazioan.

Hain zuzen ere, une horretan piztu ziren gure hirian, besteak beste, ikasleen greba handiak edo Duin-tasunaren Martxak, eta horiek dira, kasu askotan, zuzenean esku hartu genuen lehen esperientzia politikoa. Eta horien ondoren, hain zuzen ere, gatazka soziala areagotu egin zen gure lurraldeetan, eta ikusten dugu, halaber, zentro sozialen okupazioek edo antifaxismoaren moduko mugimenduek indar handiagoa hartu zutela, eta gutako askorentzat ohiko sozializazio-espazio bihurtu ziren. Gainera, hurrengo urteetan, politikoki hazten eta heltzen ari ginen urteetan, mugimendu berriak sortu ziren, hala nola feminismoa edo etxebizitzaren aldeko borroakak, non gutako gehienok bat egin genuen era batera edo bestera.

Ikus dezakegunez, M15a eta hango garatzen hasi ziren borroka- eta protesta-prozesuak funtsezkoak izan dira guretzat; izan ere, horiek izan ziren gure politizaziorako lehen gertaera nagusiak, eta, hein handi batean, horiek eratu zituzten geroago parte hartu dugun espazio politikoak.

Horien garrantzia oso argi ikus daiteke bertan sortu ziren edo modu berri batean sendotu ziren eta gure militantziarekin lotura handiagoa izan zuten eragile politiko nagusiak aztertzen baditugu.



Hel diezaiozun horri. Zein da eragile politiko horien inguruan egiten duzun analisi?

Ikasle mugimendua daukagu bate-tik. Gure institutu eta unibertsitateetan 2010. eta 2014. urteen artean egin ziren greben eta borroken zikloa izan da gutako askorentzat politizaziorako eta antolakuntzarako lehen esperientzietako bat. Kide gehienek, nork bere esku-hartze esparrutik, mugimendu hori esploratu zuten, azken hiruzpau urteetara arte. Azken urte horietan ikasle mugimendua ia ezerezean gelditu dela nahiko nabarmena da, esaterako Madrilén, non belaunaldien arteko erreleboa ezin izan den lortu ezta minimoetan ere. Mugimendu horrek arazo ugari izan zituen beti bere esku-hartze eremu espezifikotik ateratzeko, eta, beraz, gatazka handieneko gertakarietatik aparte, greba handiak kasu, ohikoa izan da autoerreferentzialtasunean erortzea eta abian ziren dinamika kulturelari jarraitzea.

Bestalde, mugimendu feminista daukagu, zalantzarik gabe, gutako askok parte hartu dugun lehen masa-mugimendu handia. Gure kide gehienak mugimendu hori etengabe hazten ari zen unean politizatu ziren, eta, ondorioz, askotan parte hartu zuten batzarretan, egituretan, ekintzen eta manifestazioen antolaketan eta abarretan. Zalantzarik gabe, azken urteetako mugimendu garrantzitsuenetako bat da, eta, beraz, mugimendu horrek gure militantzia izan duen eragina oso esanguratsua da. Batez ere Madril izan da mobilizazio handien epizentroa, non feminismoak beste ezein subjektu politikok ez bezalako mobilizazioak egiteko gaitasuna izan zuen. Eragin handia izan du politika, hizkuntza nahiz dinamikak egiteko eta ulertzeko moduetan: politikaren zentzu komun feminista bat proposatu zuen, horren inplikazio politikoetako batzuk direla medio modu egokian tratatu beharrekoa dena, planteatutako kritika askoren erreakzionarismoan erori gabe. Laburbilduz, azken urteetan beheranzko joera nabarmena izaten ari den mugimendu batez ere ari gara: mugimendua bi bloketan hautsi da, eta eskuin muturrak erreakzio matxista nazkagarria bultzatu du. Hala, hark posizioak berreskuratu ditu agenda kulturean, eta ofentsiban dago gaur egun. Gure ustez, mugimendu horren barne-logikak ikusita, hori ezin zen bestela izan.

Bi horiekin batera, zentro sozial okupatuak eta mugimendu antifaxista ere berririo indarra hartzen hasi ziren sozializaziorako eta militantziarako espazio eta logika moduan, non gutako askok oso gaztetatik egin dugun bat. Zentro sozial okupatuak izugarritzko historia dute gure hiri batzuetan, eta guk haien irudi nahiko desitxuratua jaso genuen, gaur egun aurre egin behar diogun erasoaldiak jo gintuen arte; izan ere, Madrilen moduko hiriek jada ez dute ia erradiazio eta antolaketa politikorako gune gisa balio duten zentro sozial handirik.

Konturatu ginen ez geundela zenbait mugimenduren akats taktiko zehatzen edo ahultasun zehatzen aurrean, baizik eta mugimendu desberdinen porrota logika eta dinamika orokorrago baten ondorioa zela, eta hori lehendik zeuden militantzia-espazio guztietan ari zela erreproduzitzen

Eta zer esan antifaxismoaz Madril. Ez dugu uste zentzugabea denik pentsatzea Carlos Palomino antifaxistaren eraiketa mugarri izan zela eta politikaz eta militantziaz pentsatzen genuen guztia markatu zuela gutako gehienontzat. Hurrengo urteetan nagusi izan ziren gazteen kolektibo antifaxisten esperientziek, izugarritzko antolaketa- eta politizazio-esperientziak izan zirenak, gure auzoetako errealtate hurbilenean politikoki esku hartzeak zer esan nahi zuen jakiteko aukera eman ziguten. Esperientzia hori, berriz ere, erabateko gainbeheran sartu zen duela bi urte inguru, ez baikenuen lortu belaunaldien arteko erreleboa eraginkorra izatea. Gutako askorentzat, horrek piztu zituen lehen alarmak. Hain zuzen, konturatu ginen ez geundela zenbait mugimenduren akats taktiko zehatzen edo ahultasun zehatzen aurrean, baizik eta mugimendu desberdinen porrota logika eta dinamika orokorrago baten ondorioa zela, eta hori lehendik zeuden militantzia-espazio guztietan ari zela erreproduzitzen.

Eta, zalantzarik gabe, etxebizitza mugimendua ere nabarmendu behar dugu, 2010-2020 hamarkadako beste esperientzia handienetako bat baita, gure klaseko sektore desjabetuenean politika egiteko izan dugun lehen moduetako bat. Zalantzarik gabe, hainbat sektorek apustu taktikoa egin zuten borroka horietan esku hartzeko, nolako potentzialtasuna zuten ikusita. Eta gutako asko ere hor egon ginen oso bestelako politizazio-esperientzia batean. Halako antolakunde baten barruan, errealtatea oso modu gordinetan bizi duten pertsonekin batera aritzen zara militantzia (beste militantzia mota batzuetan pentsaezinak liratekeen errealtateak); hain zuzen, etxea eta familia ez galtzeko, asanbladan antolatu behar den jendearekin. Horrek aurreko esperientziekin duen desberdintasuna izugarria da, baina, hain justu, lantzen duen gatazkaren berezitasunagatik (une jakin batean hainbesteko garrantzi mediatikoa irabazi zuen), mugimendu horrek modu agerikoagoan jarri gintuen jarraian aipatuko dugun subjektuari dago-kionez izan beharreko funtzionatzeko moduaren aurrean. Askorentzat, agian, horixe izan zen gainezka egiteko behar izan zuen azken tanta.

Subjektu hori M15etik sortutako sozialdemokrazia populista berria da. Izan ere, aipatu berri ditugun mugimendu horiek guztiak Podemos fenomenoaren sorrera- eta gorakada-prozesuarekin batera garatu ziren. Hasieran, fenomeno horrek anibalante jokatu zuen mugimendu gehienetan, eta denborarekin eta bere burua erakundeetan integratzeko prozesua gertatu ahala, harremana tentsio gehiagokoa eta gatazkatsua goa bihurtu zen. Militanteak kooptatzeko logikak, mugimendu horien eskariak artikulatzeko ahaleginak, mugimendu horien interesak erakundeetan ustez «ordezkatzeko» dinamikak eta beste amarru batzuk behin eta berri errepikatu dira militante gisa egin ditugun politizazio- eta heltze-prozesuetan. Lehenik tragedia gisa eta gero fartsa gisa, gure belaunaldia sozialdemokraziaren proiektu populistaren gorakadarekin eta beherakadarekin hezi da politikoki, zeinak porrot egitera kondenatuta zeuden oinarriak baitzituen, 2015ean Grezian izandako esperientziak erakutsi zuen moduan. Eta horrek guztiak, heldutasun politikoa lortzen joan ahala eta gure mugimenduen egoeraren eta subjektu horrekin genuen harremanaren azterketa egin ondoren, sozialdemokraziaren proiektuari kritika sakona egiteko egoeran egotera eraman gaitu; agian horretan aurrerago sar gaitezke sakonago. Mugimendu horiek ezin dira «biktima» gisa ikusi; izan ere, hasi zirenerako jada muga politiko batzuk zituzten, hala nola sektorialtasuna, lokalismoa, asanblearismoa, ekonomizismoa, bat-batekotasuna eta abar, eta, ondorioz, sozialdemokraziaren oinarri sozial bihurtzeko aukera asko zituzten, ez baitziren gai haren logika politikoarekin kontraesanetan eta gatazkan sartuko zen praktika politiko bat egituratzeko.



Nazioarteko koiuntura politiko eta ekonomikoa erabat lur jota dago gure ustez, eta horrek agerian uzten du, gainera, aspalditik garatzen ari zen prozesu bat; horren adibide da M15eko protesta-zikloaren ondorioz sortutako sozialdemokrazia berria Estatuaren logiketan erabat integratu izana

Zuen ustez, zer auzik leherrarazi zituen prozesu horiek?

Guk uste dugu 2010-2020 hamarkadan antolatu ziren borroka- eta sumindura-prozesuek batez ere 2008ko krisi kapitalistaren ondorioei erantzun zietela. Uste dugu ez dagoela gertakari hori behar bezala kokatzeko modurik nazioarteko metaketa-ziklo kapitalisten dinamikarekin lotzen ez bada. Izan ere, une hartan egoera ekonomikoa oso gogorra zen Europako langileriarentzat, batez ere hegoaldeko estatuetan, eta horri Espainiako erregimen politikoak duela urte batzuetatik herrestan zerratzen hainbat faktore gehitu zitzaizkion, esaterako, politika egiteko modu jakin batzuk agortuta egotea eta horiekiko gero eta desengainu handiagoa izatea. Zehazki orduan hasi zen erakunde burgesen legimititate politikoaren eta ordezkartzaren krisi handi hori, egoerak erakunde horiek gaingitu zituenean.

Horregatik, gure ustez, prozesu hori ezin da bereizi gaur egun bizitzen ari garenetik; izan ere, krisi honen detonagailu nagusia bizitzen ari garen Kapitalaren metaketa-krisia gordindu izana da. 2008ko krisia eta egungo krisia, beraz, bereizi ezin diren bi une dira. Puntu horri garrantzi handia ematen saiatzen ari gara, uste baitugu hori behar bezala aztertzeak erabateko eragina duela aurrean dugun prozesua nola bideratu behar den pentsatzeko ikuspegian. Horiek horrela, pandemiaren hasierak erabateko inflexio-puntua ezarri zuen, non sistema kapitalistaren barneko kontraesan dagoeneko handiak gero eta nabarmenago bilakatu ziren. Eta horren atzetik datoz bizitzen ari garen bizitzaren garestitzea eta prozesu inflazionista bortitza, Europako lurretan berriro gerra inperialista bat piztu izana, mundu mailako krisi energetikoa larriagotzea eta estatu burgesen atzerakada autoritarioa.

Nazioarteko koiuntura politiko eta ekonomikoa erabat lur jota dago gure ustez, eta horrek agerian uzten du, gainera, aspalditik garatzen ari zen prozesu bat; horren adibide da M15eko protesta-zikloaren ondorioz sortutako sozialdemokrazia berria Estatuaren logiketan erabat integratu izana. Subjektu horrek jarrera anbigua izan zuen ordura arte esku hartu genuen militantzia-eremu askotan, tentsiozko harremana genuen harekin, eta zehazki kooptazioaren eta mugimendu horiek erakundetan ustez zituzten interesen «ordezkari» izatera jotzen zuen; ordea, «historiako gobernu aurrerakoienean» behin betiko sartu izanak gure intuizioak berretsi besterik ez zituen egin. Hala, ordutik aurrera, askoz premiazoagotzat hartzen hasi ginen proposamen sozialdemokrataren oinarriak aztertzea eta haren logiken eta funtzionatzeko moduen kritika erradikala egitea, gure ustez hori izan baita egungo egoeraren erantzule nagusietako bat. Hori izan zen elkartu gintuen beste puntu bat, EPK marko komun gisa ezartzearen aldeko apustuarekin eta MS Euskal Herrian garatzen ari zen tesiekiko genuen interesarekin batera, eta horri esker aurrera egin ahal izan genuen gure kohesio ideologikoaren eta berrosatze politikoaren prozesuan.





Eta orain, zer aldatu da?

Aipatu berri dugun bezala, sozial-demokrazia populista berria gobernuan sartu izanak *impasse* une bat ekarri die gizarte-mugimenduei eta gure lehengo militantzia-espazioei, begi-bistan jarri baititu proiektu sozialdemokratak teoriarik lortu nahi dituen helburuak betetzeko dituen muga izugarriak. Horren ondorioz, sektore asko autokritika-prozesu batean sartu ziren, gure mugimenduek orain arte izan duten zeregina-ri, azken urteetan aurkitu dituzten mugei eta sozialdemokraziarekin izan duten harremanari buruz hausnartuz. Eta horrek espazio eta mugimendu horiek proposamen berrietara gehiago irekitzea eragin du, adibidez MS mahai gainean jartzen ari den proposamenetara irekitzea; gure ustez, horrek aukera ematen du militantzia kritiko eta konbikzio iraultzailedun horren zati handi bati jarraitutasuna emateko. Izan ere, nahiz eta orain arte zenbait proiektutan militatu behar izan duten, jakin bazekiten proiektu horiek ezin zutela ordura arte emandakoa baino askoz gehiago eman, baina horiek ziren beren lurraldeetan aurkitzen zuten lan egiteko espazio duin bakarra. Izan ere, antolakunde komunistek ez zuten ezer sinesgarri-rik eskaintzen, eta gure mugimenduetan nagusitzen zen logika autonomoari jarraikiz, eskala handiagoko egiturak koordinatzeko saiakerak beti amaitzen zuten ezerezean.

Horretaz gain, kontuan hartzekoak dira metaketa-krisi kapitalistaren ondorio gogorrenetako batzuk, gaur egun bizitzen ari garenak, hala nola proletarizazio-prozesua eta bizitzaren garestitzea edo kolpatzen gaituen energia- eta baliabide-krisia. Izugarri aldatzen ari den mundu batean bizi gara, iraganeko ziurtasunak gero eta ahulagoak dira, eta munduko iparraldeko estatu burgesetako klase desberdinen interesek gero eta konfrontazio handiagoa dute beren artean. Badi-rudi amaitzen ari dela ongizate-estatuen moduko tresnen bidez bake soziala eta klase interes jakin batzuen harmonizazioa lortzeko garai hori. Gero eta sektore gehiago ari dira hori ikusten, baita elite politiko burgesen barruan ere, nazioartean mugimendu arraroak egiten ari baitira: gogoratu Liz Truss lehen ministro kontserbadore britainiarraren kasua. Eta, beraz, koiuntura irakurtzeko gaitasun handiena duten espazio militanteak gatazka soziala areagotzearen aldeko apustua egiten ari dira. Hain zuzen ere, horri esker, nolabaiteko haustura sortzen ari da orain arteko dinamikekin, eta gero eta sektore gehiagoren artean eztabaidagai jartzen ari dira hainbat eredu estrategiko, agertoki berriak irekitzeko aukera emango digun borroka-prozesu berri bat bultzatzeko. Hor kokatzen da gero eta interes handiagoa egotea MS planteatzen ari den estrategia berrituarekiko; gure ustez, bera da praktikan nolabaiteko potentzialtasuna eta eragin-kortasuna erakutsi duen proposamen estrategiko bakarra.



Beraz, zein baldintza zehatzek ekarri dute haustura politikoa?

Haustura politiko hori gauzatze-ko baldintzak honela bana genitzake: krisi kapitalistaren nazioarteko koiuntura ekonomikoa, hainbat esparrutan aldaketa handiak eragiten ari dena (lan-egituraren, klase-osaeraren, belaunaldien arteko orekan, eta abar); sozialdemokrazia populista berria gobernuan sartzearekin amaitu zen ziklo politikoaren itxieraren ondorioak, horrek zenbait sektore militantetan eragin duen desengainu politikoarekin eta subjektu horren artikulatzeko gaitasun galerarekin (kooptazioa, gure borroken eta mugimenduen potentzial iraultzalea ordezkatzea eta deuseztatzea, eta abar); eta batez ere gazteek osatutako hainbat sektore militanteek duten determinazioa autokritikatik abiatuta prozesu berri bat bultzatzeko, orain arte aurkitu ditugun mugak gainditzeko eta erresistentzialismo hutsetik ateratzeko.

Zuen ustez, zergatik gertatu da haustura hori nagusiki gazteen sektoreetan?

Arrazoi asko daude. Lehenik eta behin, agerikoa dirudi bizitzen ari garen proletarizazio-prozesuak eragin handiagoa duela batez ere langile klaseko belaunaldi gazteengan. Proletalgoa honela definitu ahal izan dugu: desjabetuen multzoa, jabetza modu egonkorrean eskuratzeko aukerarik ez duten sektoreek osatua. Sektore horiek ez dute espazioaren gaineko eta bizitza erreproduzitzeko baldintzen gaineko kontrolik ere, eta beren lan-indarra saldu beharra dute bizitza erreproduzitzeko, izan zuzenean edo zeharka; hau da, klase hori ez dute osatzen lan egiten duten pertsonak bakarrik, lan egiten ez dutenak ere osatzen dute. Definizio horri erreparatzen badiogu, argi dago langile klaseko belaunaldi berrien eta beren aurreko belaunaldikoen artean haustura bat dagoela, eta lehen talde horretakoek desjabetze-prozesu are zorrotzago bati egiten diotela aurre: etxebizitza baten eskuragarritasuna are mugatuago dago guretzat, etxebizitza baten jabetza, oinarritzko artikulazio-nukleo gisa, desagertzen ari baita. Frankismoak Trantsizio-rako ondo lotuta utzi zuen «jabeen demokrazia, ez proletarioena» esaldi ospetsua pitzatzen ari da gaur egun; soldatapeko lanerako aukera gero eta urriagoa da, Espainiako Estatuak Europar Batasunean tasa altuenetakoak ditu behin-behineko lanpostuei eta gazteen langabezia tasari dagokienez; etxetik emantzipatzea gero eta beranduago eta modu ezegonkorragoan gauzatzen da; familia indarra galtzen ari da erreprodukziorako oinarritzko unitate ekonomiko gisa; eta, horregatik guztiagatik, bizi-ezegonkortasun sakona ari da sortzen, arazo emozional eta psikologiko handiak eragiten dituenak. Langile belaunaldi gazteen garaiko agertokia izugarria da.

Argi dago langileen mugimenduaren egitura klasikoekiko leialtasun politikoan erabateko aldaketak ari direla gertatzen. Sindikatuak eta alderdi instituzionalak besteen kontua balira bezala ulertzen dira. Eta badirudi Estatuarekiko eta haren instituzioekiko konfiantza ere erortzen ari dela. Izan ere, ezin da ahaztu gu jada ez garela Trantsizioaren eta haren promesen seme-alabak; gu krisiaren seme-alabak gara

Eta, bestetik, egiturazko desberdintasun horrek ezinbestean dakartzan bizitzeko eta errealtatea ulertzeko modu berriak, orain arte nagusi izan den ulertzeko eta politika egiteko moduarekiko haustura eragiten dutenak. Haustura hori ez da automatikoa, baizik eta politikoki eragin behar da, baina argi dago langileen mugimenduaren egitura klasikoekiko leialtasun politikoan erabateko aldaketak ari direla gertatzen. Sindikatuak eta alderdi instituzionalak besteen kontua balira bezala ulertzen dira. Eta badirudi Estatuarekiko eta haren instituzioekiko konfiantza ere erortzen ari dela. Izan ere, ezin da ahaztu gu jada ez garela Trantsizioaren eta haren promesen seme-alabak; gu krisiaren seme-alabak gara. «Zertan hobetu ditzakezue neuk eta neure lagunek ditugun bizi-baldintza negargarriak? Zertan bereizten zarete zeuen artean eta zer aukera errealek duzue agintzen ari zareten hori betetzeko? Bat ere ez, ezta? Orduan ospa hemendik». Gure ustez, hori ari da pixkanaka-pixkanaka zentzu komun bihurtzen belaunaldi langile gazteen artean. Are nabarmenago, gainera, sektore militanteen

artean, lau urtean behin istorio bera errepikatzen ikusten baitute. Politika burgesa eta hark gizarte-mugimenduetan duen agertzeko modua «betikoaren betiereko itzulera» da.

Horregatik guztiagatik, belaunaldien arteko haustura, politika burgesarekiko haustura politiko bihurtzeko, batez ere, haren ezker hegale sozialdemokraziarekiko haustura. Horretan azpimarra jarri behar da. Kontua ez baita langile belaunaldiak elkarren artean aurrez aurre jartzea, ez horixe. Proiektu sozialistak langile guztiak Estatuaren eta Kapitalaren boterearen aurka borrokatzeko antolatatu nahi ditu. Prozesu iraultzaile berri bat artikulatzeko klase horretako potentzia handienak non dauden aztertzea da egin beharra. Eta, esan bezala, sektore zaharrak ez bezala, gazteak ez daude Estatuaren eta Kapitalaren logikei eta fidelitasunei lotuta, eta, beraz, haien artikulazio politikoak, mugimenduaren hasierako berrosatzeko-une honetan, dimentsio berezia hartzen du, gero aurrera egiteko eta proletarioen beste geruza batzuk artikulatzeko.

Hitz egin dezagun gehiago hausturari buruz. Norekin hautsi zenuten eta zertan oinarrituta?

Beno, hau oso interesgarria da, guretzat haustura-prozesua oso desberdina izan baita Euskal Herrikoarekin edo Herrialde Katalanetakoarekin alderatuta. Horietan egitura burokratiko handi batekin hautsi zen, kutsu nazionalistako alderdi sozialdemokrata handi batekin, ordura arte gazteen nukleo sozialistak bildu zituena, baina azterketa kritiko eta eztabaiden ondoren «honaino iritsi gara» esan zutenak. Guk ere egin dugu puntu horretara eramaten zaituen prozesu konplexu hori, baina gure «honaino iritsi gara» hori ezin zaio subjektu oso zehatz eta definitu bati esan, baizik eta dinamika eta egiteko modu orokor eta oso zabaldu batzuei. Eta uste dugu gauza bera gertatzen dela prozesua paraleloki aurrera egiten ari den lurraldeetan, hala nola Madrilén, Burgosen eta Valladoliden.

Guk ez dugu alderdi eta egitura handi batekin hautsi. Hemen beste lurraldeetan dagoenaren antz handiena izan lezakeena Espainiako sozialdemokrazia litzateke, Podemosek eta PCEk ordezkatzen dutena. Baina ezin da esan haietako batekin ere hautsi dugunik, inoiz ez garelako horietako kide izan eta, gainera, ez dute ia ehun militanterik. Egitura elektoralista hutsak dira, eta logika burgesari jarraikiz, erabat bereizi dituzte maila politikoa (hauteskunde-dinamikara murriztua) eta maila soziala (gizarte-mugimenduei delegatua), eta horrek hauteskunde-makinak izatea oinarrian duten «antolaketa-egitura» izatera murrizten ditu. Hautsi egiten dugu, beraz, haiekin harremanak izateko moduarekin, hala politika haien logiketatik kanpo ulertzeko eta estrategia propioa izango duen programa independente bat proiektatzeko. Gure «honaino iritsi gara» esateak esan nahi du ez dugula jarraitu nahi gure ahalegin militante guztiak sozialdemokraziak artikulatu ditzan ahalbidetzen, lau urtean behin gutako askoren botoa jasotzen segi dezan beste alderdien artean «gaitz erdi» delako, eta mugimenduak haiei eskariak egitera muga daitezen edo lobby moduan presioa egin diezaieten kooptazio eta ordezkapen logikaren bidez.

Guretzat, orduan, funtsezkoa da programa sozialista bat berregitea subjektu horiekiko antagonismo-logika bat artikulatu ahal izateko; izan ere, subjektu horiek dira egungo egoeraren erantzule nagusia, eta orain arte gure mugimenduetako askok jarrera ambigua eta ahula izan dute haiekin. Horregatik azpimarratzen dugu hainbestetan proiektu sozialdemokratak eta estatu burgesen dinamikak nolako mugak dituzten kapital-metaketaren krisiaren aurrean. Hautsi egiten dugu, beraz, mugimendu horiek osatzen dituzten antolakunde eta egiturek orain arte harreman horretan (sozialdemokrazia-Estatua-Kapitala) izan dituzten dinamikekin, batez ere autonomiaren logikak determinatuta, baina baita beren buruari komunista esaten dieten erakunde multzoarekin eta anarkistekin ere, horientzat ez baitira aldatzen agertokia eta gauzak egiteko moduak duela hamarkada batzuetatik. Guk, beraz, geure buruari esan diogu «honaino iritsi gara»; ordura arte gure lan militantea egin genuen mugimendu eta tradizioen funtzionatzeko moduari. Eta hori zerbait partikularra dela uste dugu...



Zer zailtasun izan dituzue prozesu horretan?

Benoa, neurri batean, prozesuaren puntu honetan espero izatekoak diren zailtasunak ditugu. Aurreko ziklotik jaso dugun oinordekotza nagusietako bat da gure lurraldean ehun militantea erabat desaginda eta zatituta dagoela; izan ere, Herrialde Katalanetan edo Euskal Herrian ez bezala, hemen ez dugu bloke nolabait kohesionaturik izan hausteko, baizik eta mota askotako korrante, kolektibo eta talde ugari izan ditugu, apurka-apurka deskonposatzen joan direnak, zoko batean baztertuta geratu arte edo erabat desagertu arte. Gu egoera horren aurrean benetako alternatiba bat planteatzen saiatzen ari gara modu apal batean, baina hori martxan jartzen ari garen lurraldean ia hutsetik sortu behar dugu militantzia-ehuna.

Ez dugu esan nahi basamortuan predikatzen ari garenik ere; zintzoak izanik, oraindik badago elkarriketaz zintzoa izateko zenbait jende, eta onartu behar dugu planteatu ditugun eztabaida eta gai askok harrera ona izan dutela, baita espero ez genuen sektoreen artean ere, eta horrek onerako harritu gaitu. Baina ebatzi beharreko arazo nagusia da nola jarraitu dezakezun hazten, eta, bitartean, proiektua kohesionatzen; nola jarraitzen duzun gero eta jende gehiago eta desberdina batzen, eta, aldi berean, zure apustua barne-mailan bateratzen. Zentzu batean, lehen esan dugun bezala, korrante politiko askotatik gatoz, eta oso harro gaude horretaz, baina, aldi berean, erronka ere bada haztera begira, kontuan izanda ez dugula aurrean are azkarrago hazteko aukera emango dizun hautsi beharreko blokerik; aitzitik, harremana izan behar duzu oso eragile desberdinekin eta sarritan oso zehaztugabeekin, edo, are gehiago, oraindik inor iritsi ez den sektoreetara iristea planteatu behar duzu.

Baina, neurri batean, hori guztia normala da abian jartzen ari garenen moduko prozesu baten hasieran, eta badakigu abian jarriko dugun praktika politikoari esker, gero eta sektore gehiagok izango dutela aukera gure planteamenduak zuzenean epaitzeko. Gure jardunaren eraginkortasunak frogatuko du planteatzen ari garen hori zuzena den ala ez.



Guk determinazioa dugu, eta uste dugu mahai gainean jartzen ari garen proposamen politikoak eta eredu estrategikoak benetan aukera eman diezaguketela gure porrot-egoeratik ateratzen hasteko

Zeri esker gainditu dituzue zailtasun horiek?

Benoa, zailtasunak hor daude oraindik, izan ere, pixkanaka aurrera egiten ari garela uste dugun arren, badakigu oraindik dena egiteko dugula. Esan bezala, praktikak erakutsiko du mahai gainean jartzen ari garen guztiak balio duen ala ez. Guk determinazioa dugu, eta uste dugu mahai gainean jartzen ari garen proposamen politikoak eta eredu estrategikoak benetan aukera eman diezaguketela gure porrot-egoeratik ateratzen hasteko. Determinazio horri pazientzia eta lasaitasuna gehitzen dizkiogu. Badakigu denborak estutu egiten duela, aurre egin beharreko erronkak presazkoak direla, eta daukagun irekitasun politikoko giro horrek ez duela beti iraungo, baina badakigu, halaber, presa ez dela bidelagun ona, eta orain arteko gure praktika militanteen bereizgarri izan den berehalakotasun eta epe laburreko ikuspegi horretatik atera behar garela. Beraz, determinazioa, pazientzia eta, azkenik, umiltasuna. Ez dugu ezer egin, dena dugu egiteko.

«Dena egiteko» horretan ziur gaude gure esparru politikoa osatzen duen jatorri militanteen aniztasun zabalak faktore positiboa izan daitekeela. Bestela esanda, heterogeneotasun horren ondorioz, kohesio ideologikoaren prozesua mantsoagoa da lehendik da goen egitura zehatz batekin blokean



haustura bat eragin duen talde batean gerta daitekeena baino, baina, aldi berean, gure prozesuaren berezitasun horri esker ikuspegi-dibertsitatea dugu, eta ikuspegi hori oso aberasgarria izan daiteke kohesio-prozesua behar bezala egiten bada. Zentzu horretan, antolakunde desberdinetako koadroak izan diren kideen gaitasun espezifiko askotarikoak ditugu, hala nola komunistak eta anarkistak, baina baita beste espazio batzuetakoak ere, hala nola, etxebizitza asanbladakoak edo gazte antolakundeetakoak. Uste dugu aniztasun horrek batzuetan erritmoa moteltzen duela, baina, kasu honetan, faktore positiboa izan daitekeela.

Bestalde, aurrera egiteko oso erabilgarria izaten ari den beste puntu bat estatuko beste leku batzuetan abiatzen ari diren era horretako prozesu batzuen erreferentzia da, adibidez Herrialde Katalanetan, baina batez ere Euskal Herrian. Hor gertatzen ari dena ikusteak indarra ematen digu. Adore handia da bultzada historiko beraren parte garela ulertzea, zenbait tesitan bat egiten dugula ikustea, etsai komun bati aurre egiten ari garela jabetzea, eta hurbileko kide batzuek antzeko testuingurutan aurrerapauso garrantzitsuak ematea lortu dutela ikustea, berezitasun historiko guztiak gorabehera.

*Aurrera egiteko oso erabilgarria izaten ari den
beste puntu bat estatuko beste leku batzuetan
abiatzen ari diren era horretako prozesu
batzuen erreferentzia da, adibidez Herrialde
Katalanetan, baina batez ere Euskal Herrian*





**Amaitzeko, jar gaitzen
etorkizunari begira.
Nola ikusten duzue?**

Oso zaila da galdera horri erantzutea. Etorkizuna beti da zalantzakoa eta beti dago irekita. Nahiko garbi daukagu ez dagoela aurrez zehaztutako eredurik, ez dagoela formula magikoen estiloan funtzionatzen duen eskema finkorik. Iraultzaren formula magikorik ez dago, iraultza ezin baita aldeztetik plan perfektu eta erabat taxutu gisa planifikatu. Nolanahi ere, iraultza egin egiten da. Eta gure ustez, antolaketa sozialistaren oinarriak eraikitzea da lehen egin beharra; izan ere, sozialismoa prozesu gisa hartzen badugu, hark hasiera-hasieratik eta modu germinalean biltzen ditu bere baitan azken helburuaren elementuak, eta progresiboki garatu behar ditu.

Zentzu horretan, egungo egoeran, badakigu mugimendu iraultzailea erabateko porrotetik berrosatu behar dela, baldintzak sortzeko borrokatuz, gero beste belaunaldi batzuk iritsi eta erasoaldi-fase berri bat ireki ahal izateko. Horregatik da hain garrantzitsua borroka kulturala hasierako une honetan, MSko kideak erakusten ari zareten bezala. Borroka politiko integral gisa planteatutako borroka kulturala egin behar da, non pixkanaka etorkizuna irekita dagoela erakutsi behar dugun. Gure klasea dagoen egoera honetatik irtetea lortu behar dugu, ze badirudi «errazagoa dela munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoaren amaiera baino», esan ohi den bezala. Hori erabateko ideologia burgesa da, eta gazte langileen antolakuntza sozialistak egunez egun erakutsi behar du bere praktika politikoa-ekin, borroka zehatzetan erakusten duen eraginkortasunarekin, badagoe-la hondamendi kapitalistaren aurrean benetako alternatibarik.

***Inolako determinismorik gabe eta
aldeztetik aurrefabrikatutako
eredurik gabe, modu sendo eta
koherentean egin behar dugu
aurrera antolaketari dagokionez, eta
programa komunista gai zehatzetan
eta egungo arazoetan lurreratu behar
dugu; horretarako, oso ondo ulertu
behar dugu bizi garen mundua***

Horretarako, funtsezkoa da koiunturaren irakurketa egokia egitea. Orrialde hauetan beste batzuetan jorratu ahal izan duzue, koiunturaren doktrina efektibo eta egokia eskaini behar dugu etengabe, eta, horretarako, prestatuta egon behar dugu, eta gure errealitatea egituratzen duten joerak ondo irakurtzen jakin. Zeren, etorkizuna zalantzakoa bada ere, badira sakoneko joerak. Eta joera horiek irakurtzen jakin behar dugu, horiek berek ematen baitizute aukera zein gatazkatan esku hartu eta nola esku hartu erabakitzeko. Hori ondo erakutsi zenuten zuek [Euskal Herriko MS] pandemiarekin eta estatu burgesen «salbuespenezko neurriekin». Hor agertzen da argien politika komunista jakintza estratagiko eta hipotetiko gisa, ezta? Politika komunista egiten den modu berean pentsatzen da: borrokan, teoriaren eta praktikaren arteko inolako banaketarik gabe, erabaki bakoitzak gure ekintza-estrategiari tresnak emateko dimentsio taktikoa duelarik.

Horrela, inolako determinismorik gabe eta aldeztetik aurrefabrikatutako eredurik gabe, modu sendo eta koherentean egin behar dugu aurrera antolaketari dagokionez, eta programa komunista gai zehatzetan eta egungo arazoetan lurreratu behar dugu; horretarako, oso ondo ulertu behar dugu bizi garen mundua. Independentzia ideologikoa eta politikoa berreskuratzeak, sortzen zaizkigun gatazken aurrean eta aurre egin behar diegun arazoen aurrean jarrerara politiko zuzenak eta indar burgesetatik argi eta garbi bereiziak hartzea eskatzen du. Pandemiaren kasua adibide ona da berriro ere. Hori da klasearen benetako independentzia une honetan. Hori horrela, beharrezkoa da borroka-taktika oro gure orainari egokitutako estrategia sozialista berrituarekin lotzea. Eta horregatik da beharrezkoa indarrak metatzea eta Prozesu Sozialistaren nazioarteko antolaketa-dimentsioan aurrera egitea. Uste dugu hori dela EPSko jende guztiak egiten dugun apustua. ●

«Independentzia politikoa hedatzea da mugak gainditzeko gakoa»

Natàlia Ciurana,
Horitzó Socialistako militantea



Kataluniako autonomia estatutuaren erreformaren harira sorturiko tentsio politikoak ekosistema espezifiko bat eragin du Herrialde Katalanetan –nahiz eta kontuan hartzekoa den lurralde horren kohesio politikoaren izaera erlatiboa, lekuan leku interes politiko oso ezberdinek hartzen baitute protagonismoa–, eta hori lurralde horretako jardun politikoaren erritmoak eta edukia neurri handi batean determinatzera heldu da. Zenbait agente politikok izandako postura independentisten erradikalizazio prozesuak nabarmen bete du Herrialde Katalanetako agenda politikoa, eta egon diren borondate edo xede politiko desberdinak haren inguruan orbitatzera behartu ditu. Milurtekoaren lehen hamarkadan zehar CIUk bere posizio politikoa erradikalizatzera jo du, PSC alderditik bereizi (PSEk ez bezala, fakzio nazionalista bat biltzen du bere baitan, adibidez) eta Kataluniako hautesle sektore baten baitan nabarmentzeko asmoz.

Fakzioen arteko norgehiagoka horrek bat egin zuen 2008ko krisiaren etorrerarekin eta haren eraginekin. Izan ere, langile klasearen eta klase ertainen bizi baldintzen okertzeak koiuntura berrira moldatzeko eta errealtate berri horri –denborak aurrera egin ahala ikusi den moduan, luzerako etorri zen errealtate– erantzuteko gaitasuna izango zuen programa politikoko baten beharra mahaigaineratu zuen. Proposamen politikoko apurtzaile baten faltak, hots, antolakunde iraultzaile sendo baten absentsiak, bat egin zuen proposamen independentistak eragindako optimismoarekin, zeinak inpaktu mediatiko handia izan zuen, bloke politikoa ezberdinen arteko talkak eta planteamendu konkretuen izaera performatibo eta ikusgarria tarteko, eta garatzen ari zen potentzial politikoa berriki erradikalizatutako alderdi eta proposamen demokratiko burgesetarantz bideratu zuen. «Espainiak lapurtu egiten dugu» lema ideologikoki lausoa baina ihardukitzalea den potentzial politikoko hori kapitalizatzea lortu du. Urte horietan zehar lehen independentziaren inguruko herri kontsulta (2009), Diada (2012) eta azaroaren 9ko independentziaren inguruko kontsulta (2014) egin ziren besteak beste, eta prozesu horretan zehar gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen proposamen independentistak.

Erreferenduma *procés*-aren azken katebegia izan zen, azken urteetako testuinguru politikoa gehien markatu duen gertakizuna. Hilabetetan zehar egon zen pixkanakako tentsio gorakadaren puntu gorena izan zen, eta inpaktu handia izan zuen biztanleengan. Prozesuan parte hartu zuten alderdien arteko tentsioa gora eta

behera ibili ondoren, *procés*-a masa mugimendu bilakatu zen; agente independentistak gainditu zituen, eta azken urteetako autoantolakuntzako esperientzia garrantzitsuena bihurtu zen, karga politikoko handiko testuinguru baten baitan. Esperientzia hori CDRetan gorpuztu zen, zeinek Ezker Independentistak bildutako ehun politikotik elikatzea lortu zuten. Elk eferbeszentzia politikoko horren gidaritza efektibo eta ordenatu bat mantentzeko inolako gaitasunik izan ez zuen arren, esan daiteke gatazka politikoa planteamendu beraren baitan gartzatzen jarraitu zuela, baina beste bide batzuetatik. Nahiz eta planteamenduen porrotak egitate hori agerian utzi, proposamenak, mahaigaineratutako helburuak lortzerik izan ez zutenak, prozesu horretan guztian zehar askatutako potentzial politikoa hondarrek zentzu komun batean bat egitea lortu zuen, mugimendu independentista eta bere programa legitimatzen zuena. Zentzu komun horrek sektore nazionalista eta aurrerakoiak blaitu zituen, eta ondoren greba orokorren forma hartu zuen.

2019ko sententziak, *procés*-a gidatu zuten politikariak kondenatu zituenak, atsekabe testuinguru batean heldu ziren. Urriaren 14ean kondenatutako sententzia argitaratu zen, eta horrek hasiera eman zion atsekabe eta ezinegon orokorraz elikatuko den mobilizazio ziklo bati Tsunami Democràtic tresnaren bitartez (errepide mozketak, aireportuan emandakoaren antzeko okupazioak). Bartzelonako mobilizazioen eskutik hiria istilutan murgildu zen. Gertakari horien testuinguruan garbi ikusi zen independentziaren aldarriak zer funtzio bete zuen maila orokorreko atsekabea kanalizatzeko (gehienbat gazte sektoreetan). Estatua etsaitzat identifikatu arren, ziklo hori ez zen heldu lehe-

nago aipatutako paradigma politikoko ihardukitzalea gainditzeko inolako gaitasunik eskuratzera; istiluek bereganatu zuten fase berriaren potentzial politikoa, eta horrek proposamena itoarazi zuen. Horrez gain, ez zuen inolako aukerarik ematen koiunturak eta hark gordetzen zituen aukerak kapitalizatzeko. Edozein kasutan, momentu erabakigarria izan zen sektore gazteenengan, arrastoa utzi baitzuen, eta hilabete batzuetan bide eman zion Arranen hazkundeari.

Bestalde, urte horretan, Kataluniako lehen Etxebizitza Kongresua egin zen, zeina berebiziko momentua izan zen zatikatuta zegoen etxebizitza mugimenduari forma emateko. Azken urteetan zehar PAHk galduta zuten antolakunde hegemoniko izaera, eta, aldi berean, 2015etik aurrera instituzioetara salto egiten joan diren koadroen eraginez, indar militante handia galdu du. Hala ere, hipoteken krisiaren eskutik azalduko den kaltearen belaunaldi berri batek indarra eta erreferentzialitatea mantentzeko gaitasuna eman dio. Llogaterseko Sindikatua mugimendu horren frakzio aurreratua izan da instituzioei presioa eraginda alokairuen prezioa mugatzeko erreformak lortzea helburu duen antolakuntza eskema deszentralizatu horren baitan. Antolakunde heterogeneoak zeuden bertan, non Eiko zenbait sektorek eta zenbait sektore autonomo edo libertariok bat egin zuten. Kongresu horrek mugimenduari batasun irudi bat proiektatzeko aukera eman zion, nahiz eta bere baitako aniztasun ideologiko eta estrategikoaren ondorioz zenbait talke egon ziren. Are, hausturaren lehen espresioak berehala azaleratu ziren, zehazki Llogaterseko Sindikatua proposatutako alokairuen greban.

Ekaitza baretu heinean, gero eta nabariagoa izan da zer pisu izan duen programa politiko bereizi eta garbi baten bitartez langile klasearen (bereziki gazte belaunaldietan) behar eta nahiekin bat egin dezakeen antolakunde apurtzaile indartsurik ez egon izanak. Jendearen ezinegona programa independentistak markatutako erritmoen eskutik garatu da azken urteotan, eta denboraren joanak mahai gainean zeuden proposamenen porrotak eragindako frustrazioa besterik ez du utzi. 2008ko krisiak sortu zuen testuinguruak bat egin zuen miseria gorakorrak eta klase ertainen eta langile klasearen aurkako elite finantzarioek bere kontrolpeko instituzioen eta alderdi politiko profesionalen bitartez gauzatutako ofentsibak ezaugarritutako atzeraldi ekonomiko eta finantzario berri batekin. Denboran luzatutako soldaten jaitsiera, inflazioa, familien aurrezteko gaitasunaren desegite mailakatua eta eskubide sozial eta politikoen suntsipena, besteak beste, komunikabideen orrialdeak betetzen hasi ziren beste behin. Testuinguru horretan, prozesu independentistaren porrotak bat egin zuen paktu sozialaren oinarrien desagertzearekin, eta, horrela, ke artean galdu da kapitalismoaren eskaintza zibilizatorioaren fikzioa, lanaren gizartearen kontzeptuan oinarritzen zen heinean metaketa kapitalistaren etapa konkretu bati eta haren korrelatu politikoari erantzuten baitzion, hots, programa sozialdemokratari.

Egitate horrek eragin garrantzitsua izan du langile belaunaldi berriarengan, bere azalean bizi izan baitu 2008ko krisia eta haren biharanun luzea, errausten ikusi baititu bere ziurtasun guztiak, bai maila ekonomikoan –proletarizazio prozesu basatia eta pixkanakako pobretzea–, zein forma politikoan –ordura arte

erreferentzia izan ziren alderdi politikoen, programa politikoen eta politika egiteko moduen zaharkitze prozesua–, are gehiago horiek lehen mailako funtzioak bete dituztenean zentro inperialistako herrialdeetan oligarkiaren borondatea ezartzeko ofentsiba horietan.

Horrek guztiak antolakuntza iraultzailearen garapen eta hedapen mekaniko bat eragin ez duen arren, esan daiteke zentzu komun berri bat hasi dela orokortzen, zeinak forma politiko klasiko horiek erreferentziatzat edukitzeari utzi dion, horien eskaintza politikoari ikusten dizkion ezintasunak tarteko. Prozesu hori gazte proletarioen belaunaldi berrietan ikusi da bereziki, klase ertainen beharrezanean erantzuteko egitura eta antolakundeekiko fede falta izan baitute, lehen haiek eusten zituzten bizi baldintzak, hots, ozta-ozta bizirautekoak, desagertu diren unean. Alderdi horiek proiektatzen zuten batasuna, hau da, Herrialde Katalanetan programa politiko independentistan eta *procés*-ean gorpuztutako batasuna desagertzean eta apustu katalizatzaile sendo baten absentsian, berriro sakabanatu da prozesu guztian zehar nabarmendutako potentzial politikoa.

Nortzuk zarete eta nondik zatozte?

Horitzó Socialista (HS) Herrialde Katalanetako gazteria komunistan adierazpen eta hausnarketa organoa da. Esquerra Independentistaren (EI) espazio politikoarekiko haustura politikoaren testuinguruan jaio da, eta Mugimendu Sozialistaren (MS) eraikuntzarako tresnetako bat bilakatu da.

Helburu horren bidean, hasiera batean, EIn antolatuta zegoen militantzia komunista ekoizten ari zen lan teorikoa hedatzeko espazioa izateko balio izan zuen HSk. Gaur egun, hedatzen eta antolakuntza indartzen ari garen honetan, MS tradizio politiko ezberdinetatik datorren militantzia jasotzen ari da, eta egiten ari den lanaren zati bat argitara emateko tresna da HS.

Sozialdemokraziak gure espazioetan inposatzen zituen mugekin hautsi duen belaunaldi berri batek egituratzen duen antolakuntza forma gara MS. Bizitzen ari garen ofentsiba burgesarren aurrean, sozialismoa egungo porrotaren egoera gaindituko duen masa-mugimendu gisara berreraikitze ezinbesteko premia dugu. Horregatik guztiagatik, hasiera batean Herrialde Katalanen askapenerako mugimenduaren interklasismoarekiko eta nazionalismoarekiko haustura izan dena, espazio politiko moduan egituratzen ari da egun. Sozialismoaren eraikuntza helburu, egungo ezintasuna gainditu nahi duen eta tradizio politiko desberdinetatik datorren militantzia biltzen ari da; feminismoa, abangoardia talde komunistetatik edo autonomiatik eta anarkismotik datorrena, esaterako.

Zer balio eta garrantzi izan dute prozesu independentistak, M15ak edota herri mugimenduen olatuak zuen sortze politikoan?

Oraingo delakamarkada batzuetatik bizitzen ari garen komunismoaren porrot politikoaren testuinguruan, nolabait definitutako izaera antikapitalista batekin ofentsiba burgeseke eragindako atsekabea bideratu duten mobilizazio ziklo ezberdinak egon dira. Hala, 90eko hamarkada eta mende hasiera inguruko ofentsiba globalizatzaile betean, mugimendu antiglobalizatzaile forma hartu zuen aipatutako zikloak. 2007ko krisiaren eta ondorengo berregituratze kapitalistaren ostean, atsekabe horrek hartutako formetako bi izan dira *procés*-a zein M15a.

Bi adierazpen horien aldarrikapek eduki herrikoia dute. Lehenengo, estatu antidemokratiko baten aurka egin eta estatu katalan sozialago baten alde agertzen den mugimendu interklasista gisakoa da. Eta bigarrenak, bankariei eta politikariei aurre egin eta, zuzeneko demokraziaren bidez, herritarren parte-hartze handiagoa aldarrikatzen du. Mugimendu biak konplexuak eta heterogeneoak izan badira ere, biak izan dira deskonposizioan dagoen klase ertainaren behin-behineko adierazpen antolatua, subiranismoaren edota hiritartasunaren bidez, proletalgora programa sozialdemokrataren menpe jartzen duen proiektu batekin erantzuten baitiote krisiari.

Mugimendu horien interklasismoa ezin bereizi daiteke proletalgora bizi duen porrot ideologikoaren testuingurutik. Horrenbestez, ez ditugu traiziotzat hartzen. Aitzitik, ulertzen dugu bai M15a, bai *procés*-a herritarren atsekabearen adierazpenak izan direla, eta ezin dutela, proletalgoraren antolakuntza independenterik gabe, fase interklasista gainditu. Gure belaunaldia hor sozializatu den politizazio prozesu orokortuaren parte da, eta bere esperientziak eta mugak ditu. MS, beraz, ezin ulertu daiteke aurretiko esperientzia horiek gabe, gure militantziak horietan parte hartu baitu.

Krisi osteko egoera politikoaren oinarri diren fenomenoez gain, etxebizitzaren aldeko mugimendua zein mugimendu feminista ere funtsezkoak dira MSren sorrera ulertzeko. Gure militantziaren parte handi bat horietan parte hartu ahal formatu delako, eta are, parte hartzen duen antolakunde politikoen eta herri mugimenduen mugez eta kontraesanez jabetu ahal izan delako praktikan. Hori beretik, ortzi-muga estrategikoaren falta gainditzeko borondateak herri mugimenduak ezaugarritzen dituzten espontaneotasunetik, horizontaltasunetik edota partzialitatetik haratago joateko beharra izatera bultzatzen gaitu.

Sozialdemokraziak gure espazioetan inposatzen zituen mugekin hautsi duen belaunaldi berri batek egituratzen duen antolakuntza forma gara MS. Bizitzen ari garen ofentsiba burgesaren aurrean, sozialismoa egungo porrotaren egoera gaindituko duen masa-mugimendu gisara berreraikitzeke ezinbesteko premia dugu

Sozialdemokraziaren mugekin hautsi duen belaunaldi politiko berriaren sorrera ezin ulertu daiteke baldintzen okertze orokorraren testuinguruan, aipatutako mugak frogatu eta bistaratu dituen aurreko ziklorik gabe



***Geroz eta militante
gehiagok ikusten du
mugak gainditzeko eta
sozialismoaren eraikuntzari
programatikoki uko egingen
ez dion masa mugimendua
eratzeko beharra. Mugimendu
fasean dagoen antolakuntza
sozialista eraikitzearen bidez
independentzia politikoa
hedatzea da gure belaunaldiko
mugak gainditzeko gakoa***

Zein uste duzue dela prozesu horien abiarazlea?

Haustura politiko baten prozesua konplexua da eta, segur aski, distantzia hartu eta ikusi egin beharko dugu nola materializatuko den dena, izan den belaunaldi aldaketari bide eman dioten kausak beren osotasunean ulertu ahal izateko. Hala ere, badi-ra prozesu horri bide eman dioten baldintza objektiboak testuinguruan jartzeko aukera ematen diguten egiturazko kausak.

Kausa horiek bitan bana ditzakegu. Alde batetik, krisi testuingurua, bere garapenean politikoki formatu den belaunaldi berria markatzen duena, eta bestetik, gure garaiko adierazgarri den proletarizazio prozesua. Biztanleriaren bizi baldintzen okertze orokorrak zein hura laguntzen duten neurri errepresiboen gorakadak politizazio prozesu bat markatu dute. Prozesu horrek, arestian aipatu moduan, ez du interklasismoa gainditu bere masa forman, baina aurrez politizatutako sektoreetan kritikaren garapena ahalbidetu du.

Bestalde, krisi eta proletarizazio testuinguru horren garaikide da aurreko ziklo politikoaren porrot edo gelditasun testuingurua. Kasu horretan, krisiari erantzuteko klase ertainaren proiektua gailendu bada ere, ez du burgesiaren paktu sozial berri bat izan emaitza gisa. M15aren ostean sozialdemokrazia eraberritze ziklo batean murgildu zen, eta instituzioen alde apustu egin zuen; argi gelditu dira, beraz, udaleko eta estatuko gobernuetara heltzearen mugak. *Procés*-a azken mobilizazio fase batekin itxi zen, mugimendu independentistaren buruzagien espetxeratzeen errepresioaren aurkakoak izan ziren azken erradikaltasun errainuak. Sozialdemokraziaren mugekin hautsi duen belaunaldi politiko berriaren sorrera ezin ulertu daiteke baldintzen okertze orokorraren testuinguruan, aipatutako mugak frogatu eta bistaratu dituen aurreko ziklorik gabe.

Eta orain, zer aldatu da?

Klase ertainaren blokea geldirik dagoen honetan, proletarizazio prozesua jasaten ari den klase ertainaren sektoreengan orokortu den atsekabea bideratzeko ezintasun argia dago. Nagusiki, nihilismoa eta apolitizismoa gailentzen dira proletalgoan. Sektore politizatuak beren ezintasuna erakutsi duten forma zaharrak modu mekanikoan erreproduzitzen ari dira. Zenbait kasutan, herri mobilizazioak alderdi instituzionalen bidez bideratzea ahalbidetuko duen diskurtso triunfalistik mantentzeko beharragatik gertatzen da. Beste batzuetan, aipatutako ezintasuna joera sozialdemokratak gainditzeko lan teoriko eta praktikoaeren faltagatik gertatzen da.

Azken zikloan, biztanleriaren politizazio orokorra ez da sozialismoaren antolaketaren berreraikuntzarekin batera gertatu, eta ez da klase ertainaren programaren inguruko zentzu funtzionala gainditu. Gainera, mugimendu antiglobalizatzailearen eta M15-aren baitan formatu zen militantziaren zati bat. Horietako asko hutsaltasun politikotik abiatu ziren eta, fase ekonomizista eta erreformista gainditu ez duen sindikalismoaren bidez, masekin lan egiten hastea lortu zuten espazioetan ibili ziren. Sektore horiek independentzia ideologikoa duen prozesu iraultzailearen garapena hutsaltasunera eta sektarismora itzultzearekin lotzen dute, eta, beraz, posibilismoaren gaindipenetik urruntzen dira.

Testuinguru horretan, geroz eta militante gehiagok ikusten du mugak gainditzeko eta sozialismoaren eraikuntzari programatikoki uko egingen ez dion masa mugimendua eratze-ko beharra. Sektore horientzako, mugimendu fasean dagoen antolakuntza sozialista eraikitzearen bidez independentzia politikoa hedatzea da gure belaunaldiko mugak gainditzeko gakoa.

Zergatik uste duzue haustura gehienbat gazte sektoreetan izan dela?

Belaunaldi aldaketaz mintzo garenean, ez dugu esan nahi gazte sektorean soilik gertatu denik. Aitzitik, klase ertainaren blokearen barruko aurreko ziklo edo belaunaldia ezagarritzen zuten postulatuekin hautsi duen belaunaldi politiko berri baten garapena identifikatzen dugu.

Hala ere, historikoki gertatu den moduan, belaunaldi haustura baten abangoardia izateko baldintza objektibo zein subjektibo hobeak dituen biztanleriaren parte da gazteria. Zentzu burgesa sozializatzen duten klase diziplinamendurako mekanismoen efektu zuzen txikiagoak ezaugarritzen du proletalgoaren gazteria garai gisara. Horregatik, gazte garaian, politikoki antolatzeko baldintza hobeak daude gaur egun. Gainera, aurretiko antolakuntzatik datorren tradizio politikoa du prozesuan murgildutako gazteriak.

Gaur, haustura politikoa hasi zuen subjektua bi belaunalditan bana dezakegu. Batetik, apustu sozialdemokrata instituzionalen gorenean politizatu zen eta *procés*-aren garapena bizi izan zuen lehen belaunaldia, mugak eta porrotak lehenengo pertsona bizi izan zituen. Bestetik, ondorengo belaunaldiak, horiek ere krisiaren oinordekoak, baina, gainera, atsekabea masiboa den eta sozialdemokrazia ospea galtzen ari den testuinguruan politizatu direnak. *Procés*-aren azken faseak bizi izan ditu eta, gehienbat ikasle mugimenduan, feminismoan edo antifaxismoan politizatu zen aurreko belaunaldia ez bezala, nagusiki etxebizitza mugimenduan politizatu da. Biak ala biak belaunaldi aldaketaren eta MSren barruan forma hartzen duen haustura politikoaren parte dira.

Kontaiguzue gehiago hausturari buruz. Norekin eta zein oinarriren inguruan izan zen?

Oro har, MSren sorrerak adierazten duen haustura aurreko ziklo politikorekin izan da, proletalgoaren independentzia politikorik gabeta eta klase ertainaren programarekiko hartzen dituen forma politikoen menpekota. Horrenbestez, 2007ko krisiaz geroztik izan diren bizi baldintzen okertzearekin eta ofentsiba burgesarekin batera garatutako herritarren erantzunak ez ditu, masa mobilizazioetan, ez diskurtso sozialdemokrata ez zentzu burgesa gainditu. Antikapitalismoaren adierazpen askotarikoek ez dute arrastaka dakargun desorientazio ideologikoa gainditu eta bere egin dituzte zentzu hegemonikoaren barruan kokatzen diren desbideratzeak. Hala, desorientazio horren mugen adierazpenetako batzuk dira intersektzionalitatea, sozialismoa ekonomizismora mugatzen duen errealtatea aztertzeke metodo gisara, nazionalismoa, asumitutako interklasismoaren adierazpen politiko gisara, eta horizontaltasuna, antolakuntza forma gisara.

Zehatzago esanda, haustura politikoaren hasiera Esquerra Independentistaren baitan materializatu da. EI ideologikoki eta estrategikoki heterogeneoa den mugimendu politiko bat da, eta nazionalismo iraultzailean kokatzen diren bi tradizio politikotatik edaten du nagusiki. Lehenengoa, Poble Lliuren antolatuta dago eta mugimenduaren ildo marxista ordezkatzeko du. Maoismoaren eraginak ditu, eta bere egin du helburuetan etapismo argia duen fronte patriotikoaren estrategia: independentzia, burgesia katalanarekin batera, sozialismorantz aurrera egiteko oinarriak eraikiko dituen errepublika sozial bat eraikitzeke bide gisara. Bigarrena Endavanten

antolatuta dago, eta eragin autonomo eta libertario handiagoa izan du, baita teoria intersektzionalarena ere. Tradizio sozialista bere egiten badu ere, mugimendu antiglobalizatzailearen oinordeko diren zenbait joera biltzen ditu. Biek ala biek herri batasuna EIren estrategia modura asumitzen dute. Horren kontzeptualizazioak ezberdinak dira antolakunde batean eta bestean, baina bietan klase borroka azaleratzen den fronte anitzen antolakuntza espontaneoan materializatzen da, aldarrikapenak politika instituzionalaren bidez bideratzeko, proletalgoa klase ertainarekin batzen duen programa baten pean. Horregatik, CUPEk, bere instituzioetako hautagaitzak, bere gain hartzen du herri mugimenduen aldarriak instituzio burgesetara eramateko eginkizuna.

Elren heterogeneotasun horrek eman dio bide, bere planteamenduen estrategiko eta ideologikoen barne-kontraesanaren bidez, bere gazte antolakundeak diskurtso erradikalgoko bat hartzeari, hein batean, azken urteetan sektore komunistetatik egin dugun kritikaren eraginez. Hala, hausturaren ondorioz azaleratu da antolakunde batek mugimenduaren aurpegi erradikala mantentzen duela, bere helduen antolakunde instituzionalarekin dituen kontraesanak agerikoak badira ere, eta aldi berean SEPCK, ikasle sindikatuak, programa erabat sozialdemokrata proposatzen du.

EI ez da hegemonikoa mugimendu antikapitalistan, *procés*-aren hasierako fasean CUP erreferente bilakatu bazen ere ezkerreko sektore batzuentzat nazionalismo iraultzailetik hara-tago. Gaur egun, kosmobisio burgesarekin hautsi ez duen zentzu komuna presente dago herri mugimenduetan. Ziklo aldaketaren haustura, beraz, adierazpen politiko horien mugetatik abiatuta gertatzen da gehienbat.



Zein zailtasunekin egin duzue topo prozesuan?

Parte hartzen genuen espazio politiko horien mugak kritikatzeko prozesua gaur egun printzipio komunistetan oinarrituta dugun antolakuntza maila hau eduki gabe burutzea izan da gure zailtasun nagusia. Independentzia politikoa ez da prozesu iraultzailea gauzatzeko funtsezkotzat dugun printzipioa soilik, praktikan ikusi dugun muga ere bada.

Haustura aurreko azken fasean, kritikak prozesu sozialista teorian eta praktikan eraikitze beharra definitzeko bidea hartzen ari zirenean, Arran gazte antolakundearen barruko bi blokeren sorrerak agerian utzi zuen zein den koadro sozialdemokraten papera. Etengabe blokeatu ziren bi ildoak aurrez aurre jartzeko baliagarri izanen ziren eztabaida eta formakuntzak. Burokrazia eta barne-mekanismoen erabilera ohiko bide dira eztabaidari eta kritikan sakontzeko aukerari trabak jartzeko. Erantzuna irrazionala izan da, eta ez da inoiz eztabaida politikoaren bitartez gauzatu. Kontrara, eraso pertsonaletan oinarritu da.

Horrek izugarri zaildu du aurrerapen teorikoa hausturara arte, eztabaida politikoa ez zelako baldintza egokietan izaten, eta ez zuelako posizionamenduetan sakontzen uzten. Independentzia politikoa bermatu ahalko duten antolakuntzarako egitura berrien eraikuntza, aurretik ekoizten ezinezkoa izan den aurrerapen ideologikoari bide emateaz gainera, antolakuntza hausturarik gabe erdietsiezin izanen genituzkeen ondorio praktikoetara heltzea ahalbidetzen ari da.



***Independentzia politikoa bermatu
ahalko duten antolakuntzarako
egitura berrien eraikuntza,
aurretik ekoizten ezinezkoa izan
den aurrerapen ideologikoari
bide emateaz gainera,
antolakuntza hausturarik gabe
erdietsiezin izanen genituzkeen
ondorio praktikoetara heltzea
ahalbidetzen ari da***

Etorkizunean, beharra eta arreta geroz eta handiagoak diren honetan, masa antolakuntzarako espazioak sortzea da helburua. Ikusten dugu hori dela, proletalgoak burgesiaren botere antolatuaren aurka egin dezan, maila internazionalen antolatzeko prozesu baten hurrengo urratsa



Zerk lagundu dizue aipatutako zailtasunak gainditzeko? Erraztasun aipagarriren bat?

Proletalgoaren interesei erantzuteko proiektu bat eraikitzea oztopatzen zuten muga batzuk antzeman izanaren ondorio gisara gertatu da haustura politikoa. Horregatik, kritika prozesu hau burutu duena, planteamendu berdinekin bat egin duen espazio askotako militantzia izan da, eta gainera, militantzia aktiboena eta diziplinatua da aipatutako mugak praktika politikoan ikusten zituena.

Horrenbestez, proletalgoaren interesei erantzunen dien mugimendu baten eraikuntza gure esku dagoen honetan, jakitun gara, prozesu honetan aurrera egiteko, funtsezkoa dela praktika politikoaren mesederako den etika eraikitzen duen eta formakuntza militantean lan teorikoa gutxiesen ez duen diziplina militantea.

Gainera, Euskal Herrian MSk izan zuen prozesuaren erreferentzia izan da gaurko komunistok ditugun eztabaida eta eginkizunetako batzuk argitzen lagundu digun eredu. Agertoki politikoan zein prozesu piztu zitezkeen sumatzea eta berriki gertatutako prozesuak ikuspegi internazional batetik aztertzea funtsezkoa izaten ari da hurrengo urratsak planteatzeko. Arreta eginkizun horietan jarri beharra dugu, eta alde batera utzi toki ezberdinetan beren hegemonia galtzen ari direla ikusten ari direnengandik MS jasotzen ari den eraso eta etiketak; modu horretan, sozialdemokraziaren menpekotasunetik at espazio politiko bat eraikitzeko.

Azkenik, etorkizunari begira, nola ikusten duzue?

Proletalgoaren antolakuntzaren berreraikuntza programa komunistaren bidez gauzatzen ari da proletari-zazio testuinguruak dakartzan baldintzei esker, eta ziklo aldaketa ere horri zor zaio, hein batean.

Klase ertainarekin itunak egitearen bidez gatazka soziala desegiten zuten estatu demokratiko batzuen forma autoritarioen garapen prozesua bizi izan genuen, eta orain, proletalgoaren baldintzen aurkakoa eta kapitalarekiko independentea den antolakuntza forma ororen aurkako ofentsiba bizitzen ari gara.

Gaur, MSren eraikuntza eta hazkunde fasean gaude, eta beraz, bere garapenaren hasiera-hasierako momentuan gaude. Hala ere, nazioartean erreferentzialtasuna lortzen ari da proletalgo antolatuaren artean, eta gure lurraldean jakin-mina pizten du, publikoki hedabide bat besterik erakusten ez bada ere.

Etorkizunean, beharra eta arreta geroz eta handiagoak diren honetan, masa antolakuntzarako espazioak sortzea da helburua. Ikusten dugu hori dela, proletalgoak burgesiaren botere antolatuaren aurka egin dezan, maila internazionalen antolatzeko prozesu baten hurrengo urratsa. Gure eginkizuna komunismoa masa-ideologia gisara berreraikitze-lan egitea da, eta hori gaurdanik masa-mugimendu bat sortzearekin gauzatzen da. ●

Internazionalismoa eta haren garrantzia: II. Internazionalaren sorburua



Jon Kortazar

Artikulu honetan «aspaldiko kontuez» arituko gara; hain zuen ere, II. Internazionalaren sorrera prozesuaz. II. Internazionalak mugimendu iraultzailean historikoki oso izen txarra izan du, batez ere bukatu zen moduagatik: I. Mundu Gerran chauvinismoari aurre egin ezinik, heriotza ez oso loriatsua izan zuen. Beraz, zergatik idatzi erdi ahaztutako hilotz honen inguruan?

Historian zerbait egin behar ez bada, hori proiektzioak egitea da, edo hobe esanda, proiektzioak «aukera» edo «posibilitate» baino gehiago modu lineal teleologikoan hartzea. Kasu honetan, II. Internazionalak nola bukatu zuen kontuan hartuta, 1889an fundatutako Internazional haren proiektioari estuegi lotzea bere ibilbide historikoaren osotasunean hura sagar ustel gisa tratatzea izango litzakete, hau da, Internazional hori erreformismoaren fruitu ustel moduan hartzea. Guk, materialista gisa, erne ibili behar dugu halako tentazioen aurrean.



Bigarren Internazionalaren ordezkariak VI. Biltzarrean. Amsterdam (Herbehereak) 1904



Bigarren Internazionalaren ordezkariak VII. Biltzarrean. Stuttgart (Alemania) 1907

Hortaz, II. Internazionalaren inguruko halako tentazioak uxatu ostean, galdera hauek planteatzen zaizkigu: zer geratzen da? Zer dugu bertatik ikasteko?

II. Internazionala marxismoa corpus filosofiko moduan ezagutarazi zen momentuan sortu zen, nahiz eta, ikusiko dugun moduan, erakundea askotariko ideologietatik sortu zen. Beraz, ez zituen dotrina ideologiko batek batu, nahiz eta askotan hala adierazi. Alabaina, 1889an Parisen bildu ziren langile sozialista askotariko horiek argi zuten euren herrialdeen gainetik helburu amankomuna zutela: langileriaren askapena. Beraz, proletalgoa nazioarteko subjektu gisa berreraikitze eta haren independentzia politikoa berresteko saiakera bat izan zen.

Hala, II. Internazionalaren sorkuntza bultzatu zuen arrazoiaren aldean, heriotzara eraman zuena guztiz desberdina izan zen; antagonikoa. Artikulu honek ez du aztertuko Internazional horren usteltze chauvinista. Hemen aztertuko duguna da nola internazionalismoak eragin zuen II. Internazionala sortzea, bai eta Internazional horren konposizioa ere. Era berean, hasierako eztabaida ideologikoak eta hartutako erabakiak jorratuko dira; hau da, gehiago jorratuko da nola eragin zuen internazionalismoak halako saiakera bat gorpuztea. Saiakeraren porrota beste une baterako utziko dugu.

INTERNAZIONALISMOA XIX. MENDEAREN AZKEN HERENEAN

Oso ezaguna da I. Internazionalak Pariseko Komunarekiko izan zuen atxikimendua. Fisikoki, Parisen zeuden Internazionalako kide gehienak Komunaren iraultza piztu zenean^[1]. Internazionalaren zuzendarietako bat, Eugène Varlin, Pariseko *communarden* (komuneroen) buruetako bat izan zen eta paper garrantzitsua izan zuen iraultza horretan. Baziren 1872ko I. Internazionalan ordezkari izan ziren beste *communard* batzuk ere, adibidez, Charles Longuet eta Édouard Vaillant frantziarrak^[2] (kontuan hartu behar da ordezkari asko barrikadetan hil edo exekutatutak izan zirela, Varlin bera, kasu). Baina baita frantziarrak izan gabe ere Parisko barrikadetan borrokatu zuten Internazionalaren kideak ere, besteak beste, Leo Fränkel hungariarra, eta Jaroslaw Dabrowski eta Walery Wroblewski poloniarrek –lehenak 1937ko Brigada Internazionalen konpainia bati izena eman zion, bigarrena I. Internazionalako kontseiluaren parte izan zen eta *communarden* azken erresistentzia nukleoaren buru izan zen^[3]–. Coleren arabera, Komunako Komite Zentralaren 92 kideetatik 22 aldi berean Internazionalaren kide ziren^[4]. Komunaren arrastoa II. Internazionalaren sorrera biltzarrean ere atera zen, Jules Guesderen ahotan: «Komuna berri bat sortuko dugu»^[5].

I. Internazionalaren porrota Parisko Komunaren esperientziak eta haren porrotak ekarri bazuen, II. Internazionalaren jaiotzarako faktoreak beste batzuk izan ziren. Hala ere, bai batean zein bestean, langileen arteko nazioz gaindiko elkartasuna dugu. Izan ere, bi internazionalen arteko hamarkada eta erdi pasatxoko garai horretako prentsa sozialistan bolo-bolo izaten ziren beste herrialde batzuetako idazleen artikuluak eta herrialde ezberdinetako sozialisten arteko eztabaidak^[6] (batez ere erreferentzia gisa jotatzen zuen *Die Neue Zeit* aldizkarian).

Internazionalismoa Komunaren iraultza gertatu eta aurreko urteetan ere presente zen, baita mugimendu sozialistaren barruan ere; adibidez, I. Internazionalak mundu mailako guden kontrako posizioa hartzea erabaki zuen bai 1867ko zein 1869ko biltzarretan. Era berean, kontuan izan behar da 1871n Alemaniako bi alderdi sozialistek (Lassalleren jarraitzaileek eta Bebelen jarraitzaileek) guda kredituen eta Alsazia eta Lorrenaren anexoaren aurka bozkatu zutela Reicharen parlamentuan^[7], bai eta Pariseko Komunaren alde egin ere –horrek August Bebel eta Karls Liebknecht bi urteko kartzelaldiaz zigortzera eramán zituen–.

Hori egiaztatzeko Marx berarengana ere jo genezake. *Gothako Programari Kritika* liburuxkan (1875, *Crítica al Programa de Gotha* kontsultatutako bertsioan), Marxek Alemaniako Langile Alderdiari leporatu zion bere internazionalismoa ez zela nahikoa. Hau esan baitzuen: «lehenik, langile klasearen askapena egungo estatu nazionalaren markoaren barruan egin behar da, (...) baina jakitunik izanik etorkizunean, horren ondorioa herrien arteko ahaidetzea izango dela». Marxek internazionalismoa helburu eta betekizun konkreturik gabeko «etorkizuneko» helburu ideal gisa tratatzea leporatzen die bere burkideei hitz hauen bitartez: «Programaren fede-aitormen internazionalista, egiaz, Alemaniako Alderdi Librekanbistaren fedearen *nabarmen azpitik dago*» –alderdi liberala, alemaniar burgesia gorakorren ordezkaria–. «Hark ere baieztatzen du bere aspirazioen emaitza ‘herrien arteko ahaidetasuna’ izango dela, baina, gainera, zerbait *egiten* du salerosketa internazionalizatzeko». Jada ez zuen balio internazionalismoa edo hitzez alde adierazte hutsak; zerbait egin behar zen hura gauzatzeko. Bestela, Marxek esan bezala, «Alderdi Popular Burgesaren oihartzun hutsean geratzen da, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Ligaren oihartzun hutsean^[8]», hots, arriskutsua dela internazionalismoa herrien arteko samurtasun gisa tra-

tatzea, eta horrela langile klasearen nazioarteko izaeraren ondorio politikoak ostentzea. Haren ustez, adibidez alemaniar inperioaren «nazio-estatuaren markoa», era berean, «Estatuen nazioarteko sistema baten barruan kokatzen da. (...) Edozein alemaniar merkataria, aldi berean, nazioarteko merkataria da»^[9]. Hau da, Marxek *egungo* eta *biharko* etapen aitzakiapean betekizun nazionalen eta internazionalen arteko bereizketa egitea gaitzetsi zuen; eta nahiz eta zegokion Estatua antolatzeko plataformarik hautemangarriena izan –*Alderdi Komunistaren Manifestua* obran esan bezalaxe–, argiki deitoratzen zuen egitate hori internazionalismoa ukatzeko edo haren «ukazio ahulerako» erabiltzea, hots, eginkizun internazionalak saihesteko aitzakia gisa^[10]. Hori Marxen printzipioen berrespena da, baina baita XIX. mendeko 70ko hamarkadako egoeraren berri ematen duen egitate bat ere, langile mugimenduko alderdirik indartsuenari kargu hartzeko modukoa.



Marxek «egungo» eta «biharko» etapen aitzakiapean betekizun nazionalen eta internazionalen arteko bereizketa egitea gaitzetsi zuen; eta nahiz eta zegokion Estatua antolatzeko plataformarik hautemangarriena izan —'Alderdi Komunistaren Manifestua' obran esan bezalaxe—, argiki deitoratzen zuen egitate hori internazionalismoa ukatzeko edo haren «ukazio ahulerako» erabiltzea, hots, eginkizun internazionalak saihesteko aitzakia gisa



Parisko komunaren oroimenezko zigilu sobietarra. 1971



Parisen, Komunan. *Le Monde Illustré*, 1871ko maiatza

ZERK ERRAZTU ZUEN INTERNAZIONALISMOAREN ZABALKUNDEA ETA AGERPENA?

Hau ulertzeko, zera ikertu behar dugu: nola iraun eta garatu ziren XIX. mendeko 70ko hamarkadaren (hau da, I. Internazionale desagertu zeneko garaia) eta 80ko hamarkadaren azken urteen artean (II. Internazionale sortu zeneko garaia) langileen arteko nazioarteko sare horiek.

Izan ziren, baita ere, 1872aren eta 1889aren artean nazioarteko langileak bilduko zituen erakundeak sortzeko zenbat saiakera, gaur egun askorik ezagutzen ez badira ere. Bai sozialistek zein anarkistek euren topaketak egin zituzten. Adibidez, anarkistak oso aktiboak izan ziren 1873tik aurrera, ia urtero egiten baitzituzten biltzarrak. Hala ere, urte horretan egin zuten euren azkenengo nazioarteko bilera. Sozialistek ere nazioarteko topaketa batzuk prestatu zituzten; 1877an Ganten belgikar, frantziar eta alemaniar sozialistak bildu ziren. 1881an, aldiz, Suitzako Chur hirian hamaika bat herrialde ezberdinetako sozialistak elkartu ziren^[11].

«Garai arteko etapa» honetan, Igor Krivoguzen arabera, anarkistak «Lehen Internazionale» marka eta haren zilegitasuna erabiltzen saiatu ziren eta huraxe berreraiki nahi zuten beren zuzendaritzapean. Bestela esanda, haiek eraiki edo kontrolatutako egituretara lehengo I. Internazionalearen jarraipen bat moldatu nahi izan zuten^[12]. Anarkistek eta sozialistek gain, «posibilistek» edo sozialista erreformistek ere beren nazioarteko bilerak egin zituzten, 1883an eta 1886an, biak Parisen^[13].

Azkenik, nazioarteko biltzar bat deitzeko ideia agertu zen. Alemaniako Alderdi Sozialistak 1888an planteatu zuen lehen aldiz, Frantziako marxistei zein blanquistei zuzendutako proposamen batean. Proposamen horren arabera, 1889an Nazioarteko Biltzar Sozialista bat deitu behar zen. Data ere sinbolikoa zen. Izan ere, Frantziako Iraultzatik 100 urte betetzen ziren urte horretan. Lehen pausoa 1889an Wilhelm Liebknechtek Hagan (Herbehereak) deitu zuen prestakuntza konferentzia bat izan zen. Bertan, alemaniar, frantziar, holandar, suitzar eta belgikar sozialistak bildu ziren. Azkenean, 1889ko ekainaren lehen egun zuten uztailaren 14an hasi beharreko Biltzar Nagusirako deialdi publikoa, eta 12 herrialdeetako sozialistak gonbidatu zituzten^[14].

Une horretan, alderdi sozialista bateratuak oso herrialde apurretan sortu ziren. Alemaniakoa izan zen lehena 1871n, baina salbuespena zen garai haietan. Igor Krivoguzen ustez, topaketa sozialistek egin zuten posible alderdi sozialistak sortzea. Esaterako, 1877ko Ganteko topaketan alderdi sozialistak sortzeko deia agertu zen^[15]. Franco Andreucciren arabera, Alemaniako Alderdi Sozialista izan zen garai horretan marxismoa gehien zabaldu zuena. «Garai hartan ez zen marxismoaren interpretazio nazionalik», adierazi zuen Andreuccik^[16]. Iritz horrekin bat datoz David Priestland^[17] eta Hans-Josef Steinberg. Steinbergen arabera, 1883an *Die Neue Zeit* aldizkari teoriko sozialista sortzea izan zen horretarako gako bat, aldizkari horrek hedapena baitzuen beste herrialdeetan ere^[18].

Kontuan izan behar da garai horietan, hots, bi internazionalen arteko garaian, herrialde askotan sindikatu bateratu eta masazko bat agertu zela. Horrek ere II. Internazionalearen aniztasun ideologikoa markatu zuen. Izan ere, II. Internazionaleak langile sindikatuak bere horretan onartzera behartuta ikusi zuen bere burua.

Era berean, gogoan izan behar dugu krisi kapitalista bat gertatu zela: garai horretako krisi sozialak. Kapitalismoaren espantsioa ezin dugu inolaz ere ukatu (XIX. mendeko 70ko hamarkadan industria-produkzioa bikoiztu egin zen, burdinbide kilometroak hirukoiztu eta itsas garraioa laukoiztu^[19]), baina garai haietan XIX. mendean hain ohikoak ziren krisiak gertatu ziren: gainprodukzioaren krisiak. Hori askotan aldi berean gertatu zen geroago aipatuko dugun zortzi orduko lanegunaren aldarrikapenarekin, baina baita bestelako aldarrikapen batzuekin ere, esaterako, soldatak igotzearen aldarrikapenarekin, segurantzak lortzearekin edo derrigorrezko eroslekuen kontrako aldarrikapenekin. Igor Krivoguzek ematen dituen datuen arabera^[20], greben gorakada nabarmena izan zen: Erresuma Batuan 1888an 517 greba izan ziren eta 119.000 langilek parte hartu zuten, eta 1889an 1.200 baino gehiago, eta 360.000 langilek baino gehiagok hartu zuten parte^[21]; Frantzian 1881 eta 1890 artean 900 greba baino gehiago izan ziren; eta Alemanian, Ruhr arroan, 1889an izan zen greba handi batek 150.000 langile inplikatu zituen^[22]. Egungo ikuspegitik harrigarria bada ere, AEB izan zen garai hartan greba-mugimenduen buru; alde batetik, kuantitatiboki. 1886 eta 1890 urteen artean AEBetan 6.682 greba izan baitziren, non milioi eta erdi baino langile gehiago inplikatu ziren. Bestetik, kualitatiboki, sektore askotan zortzi orduko laneguna lortu baitzuten (zortzi orduko lanegunaren aldeko nazioarteko kanpainen baitan sortu zen Maiatzaren Lehena). Bere jatorria data horretan AEBko langile mugimenduak antolatutako manifestazioa da. Ez da arraroa Engelsek 1886an AEBko langile mugimendua goraipatu izana Adolf Sorgeri bidalitako gutun batean^[23]. Aintzat hartu behar da AEBn ere legez beste herrietan baino aurreratuago zebiltzala: 1867an Illinoisko estatuak zortzi orduko laneguna ezarri zuen –hala ere, salbuespen handiak zituen lege horrek eta ez omen zen oso

efektiboa^[24]-, 1868an funtzionarioentzako zortzi orduko laneguna onartu zen, eta 1890an bertan (lehen Maiatzaren Lehenaren ostean), beste zenbait gremiok zortzi orduko laneguna lortu zuten(adibidez, arotzek)^[25]. Meatzarien kasuan, 1898an lortu zuten -esan beharra dago zaila dela AEBn data finko bat ezartzea, hango Estatu federalen autogobernua dela-eta estatuz batetik bestera legea asko aldatu baitaiteke-.

Horrek, jakina, sindikalismoaren igoera eragin zuen. Esaterako, XIX. mendeko 80ko hamarkadarako Britainia Handian 900.000 langile zeuden sindikatuta, AEBn 700.000 eta Alemanian 350.000^[26]. Alemaniako hazkundera nahiko handia izan zen. Izan ere, hamabi urte lehenago, 1878an, Alemaniako sindikatu sozialistek 50.000 kide zituzten^[27].


II. Internazionalaren sorrerarako faktore garrantzitsuen artean bage-nuen beste faktore bat: Marxen liburuek hartutako sona eta European barrena zabaltzea. Hain zuzen, Parisko Komuna izan zen Marxen lanen zabalkundea hauspotu zuen haizea. Ulertu beharra dago Marx bizi zen artean (1883an hil zen) bere lanak oso modu mugatuan zabaltu zirela, eta are gehiago 1871 aurretik -Marxen Obra Osoa modu sistematikoan argitaratzeko proiektua XX. mendeko kontua da, lehenbizi SESB eta Alemaniako Estatu Demokratikoa gisako estatuena, eta ingelesezko edizioena geroago^[28]-. Eric Hobsbawmen arabera, 1850ko lanen artean, Marxen lan berreditatu bakarrak hauek izan ziren: *Alderdi Komunistaren Manifestua*, *Luis Bonaparteren Brumaire*-aren 18 eta Engelsen *Nekazaritza-gudak Alemanian: Iraultza eta kontrairaultza Alemanian*. Marx bizi zen artean, aipatutako lanez gain, soilik *Kapitala* izan zen berreditatu eta itzulua (errusierara eta frantsesera). *Alderdi Komunistaren Manifestuak* 1871ra-ko «soilik» bederatzi edizio izan zituen -kontuan izan behar da Marxen lanen artean jarrita liburu nahiko meharra dela-^[29].

Komunaren ostean, ordea, Marxen lanek nolabaiteko bultzada izan zuten. Horren ostean argitaratu zen *La guerra civil en Francia* («Guda Zibila Frantzia») lana izan zen Marx bizi zen artean berrargitaratzea lortu zuen liburu bakaretakoa. Hain zuzen, Komunaren inguruko analisi bat zen, nahiko distantzia txikiarekin egindakoa. Bigarren edizioa ere nahiko denbora laburrean argitaratu zen. Baliteke hura izatea, *Alderdi Komunistaren Manifestuarekin* batera, Marxek bizi artean izan zuen «super-salmentako» lan bakarra (*Kapitala* askoz ere zirkulu mugatuetan irakurtzeko lana zen). *Manifestuak* berak, Parisko Komunaren ostean zoria alde izan zuen. Paradoxikoki bi lanen zorte ona alderatu genezake, biak oldarraldi iraultzaile bana gertatzen ari zela atera baitziren. Zorte hori handitu egin zen Marx hil ostean. Hobsbawmen arabera, 1883 eta 1895 artean *Alderdi Komunistaren Manifestuaren* 75 edizio berri agertu ziren 15 hizkuntzatan, aurreko 35 urteetan agertutakoen laukoitza -Engels hil zeneko urtea da 1895a; oraindik II. Internazionalaren hasiera zen, 1895 artean soilik hiru Biltzar Nagusi egin baitzituen II. Internazionalak: 1889koa, 1891koa eta 1893koa-. Horrez gain, Marxen lan (ia) ezezagunek argitalpen edo berrargitalpen gehiago izan zituzten: Hobsbawmen hitzetan, esan genezake garai horretan lehen aldiz izan genuela Marxen (eta Engelsen) lanen corpus bat. Urte horietan atera ziren lehen aldiz edo berreditatu ziren lan hauek: 1848-51ko zikloaren inguruko lanik gehienak, «Gothako Programari Kritika» -agian atera eta berehalakoan berredizioak izan zituen lehen lan marxiarra, *Alderdi Komunistaren Manifestua* kenduta-, *Soldatapeko Lana eta Kapitala* (*Trabajo asalariado y capital*), *Filosofaren Miseria* (*La miseria de la filosofía*), eta Engelsen *Langile klasearen egoera Ingalaterran* (*La situación de la clase obrera en Inglaterra*), *Sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora* (*Del socialismo utópico al socialismo científico*), *Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorria* (*El origen*

de la familia, la propiedad privada y el estado) eta *Anti-Dühring* (pixkat lehenago idatzi zena), *Kapitalaren* bigarren eta hirugarren liburukiak ahaztu gabe (Marx bizi artean lehena soilik argitaratu zen)^[30]. Baziren, Marx eta Engelsez gain, beste sozialista batzuen liburu arrakastatsu batzuk ere. Besteak beste, August Bebelen *Emakumea atzo, gaur eta etorkizunean* -geroago *Emakumea eta sozialismoa* (*La Mujer y el Socialismo*) izenburua hartu zuen-, 50 aldiz editatu zen 1878 eta 1909 artean!^[31]

Nola eman ziren lan horiek ezagutzera? Lehenik eta behin, Engelsen lana azpimarratzekoa da, askotan bigarren lerroan edo ustezko akats «dogmatiko» edo «eskematizisten» erruduntzat jo izan bada ere, berak hartu baitzuen publikatu gabeko Marxen obrak argitaratzeko eta berrargitaratzeko zeregina. Berak ekin zion, adibidez, *Gothako Programari Kritika* berrargitaratzeari eta zabaltzeari, zeina azken urte horietan Marxen pentsaera beste eskola sozialista batzuekiko bereizten zuen lana baita. Halako lanek arrakasta handia izan zuten alderdi sozialista ezberdinetan. Esaterako, Italian 1900erako itzulua zegoen Engelsek utzitako obra ia osoa^[32].

Bestalde, kontuan izan behar dugu bai Marxek zein Engelsek alderdi ezberdinen eztabaidetan parte hartu zutela. David Priestlandek arabera, haiei esker gauzatu zen II. Internazionalaren sorrera-bilkura Parisen (1889)^[33]. Andreuccik esaten duen moduan, une horretan marxismoa hasia zen jada beste eskola sozialistekiko bereizten, bere identitate propioa hartzen, eta hori neurri handi batean Engelsek egindako dibulgazio lanari esker izan zen^[34]. Georges Hauptek arabera, Marxen lanek benetako zabalkundea izan zuten garai horretan, baina «oraindik Bakunin, Proudhon eta bestelako ideologo batzuk ere barnebiltzen zituen ideologia sozialista eklektiko baten parte ziren». Hauptek arabera, Engelsen *Anti-Dühring* lanaren bidez (XIX. mendeko 70ko hamarkadaren bukaeran agertu zen) finkatu zen marxismoa benetako izaeradun ideologia gisa^[35].



Karl Marx eta Friedrich Engels

Baina dena ezin dugu Marxen lanen zabalkundearen bidez ulertu, kontuan izan behar baitugu II. Internazionale «marxista» gisa definitu ohi bada ere, hasiera batean ideologia-aniztasuna uste baino handiagoa zela Internazionale horretan. Zeintzuk izan ziren, beraz, Internazionale berreraikitzea posible egin zuten bestelako faktoreak? Agian, eta garrantzitsuenak, langileklasearen lekualdatzea eta nahasketa geroz eta handiagoa izatea. Igor Krivoguzen arabera, 1880rako ia 19 milioi europarrek utzia zuten beren etxea. Halako deserriratuek paper garrantzitsua izan zuten mugimendu sozialista garatzean^[36].

Migrazioen fenomeno horren ondorioz, Europako alderdi sozialistetan eta sindikatu ezberdinetan beste herrialde batzuetako jendea zegoen (kasu askotan baita fundatzaileen taldeetan edo zuzendaritza-taldeetan ere). Modu horretan herri ezberdinen arteko esperientziak partekatzeak aukera izan zen. 1882an Italiako Alderdi Sozialista fundatu zutenen artean Anna Kuliscioff izan genuen^[37]. Beste errusiar batek, Constantin Dobrogeanu-Ghereak (jaiotzako izenez Solomon Katz) Errumanian ideia sozialistak txertatu zituen, bai eta Errumaniako Alderdi Sozialista fundatu ere^[38]. Errusiako «Lanaren Emantzipazioa» Taldea sortu zuen taldeko partaideek (Plekhanov, Zasulitx, Akselrod) urte asko pasatu zituzten erbestean^[39]. Errusiar erbesteratuek garrantzi handia izan zuten XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran harrera-herrialde sozialistetan^[40]. Alemaniako Alderdi Sozialistako kide askok, hango lege antisozialistak zirela eta, Alemaniatik atera egin behar izan zuten. Askotan harrera-herrialdeetako sozialistekin kontaktuan jartzen ziren, bai eta erbesteko kongresuak egin zituzten ere XIX. mendean. Esaterako, famatua da 1887an Suitzako Saint Gallen hirian egindako kongresua^[41] (XX. mende hasieran Errusiako erbesteratuek egin zuten moduan). Segida hau bukatzeko ezin ditugu aipatu gabe utzi Rosa Luxemburg eta poloniar

marxisten deserriratzea: poloniar sozialista askok Zürichen topatu zuten aterpea –orduan Europako sozialista erbesteratuen hiriburu bihurtu zen–. Hiri horretan harreman ideologiko handia egin zuten errusiar marxistekin (Plekhanoven taldearekin). 1892an Atzerriko Poloniarren Batasun Sozialista sortu zuten, Luxemburg bera kide zela; talde hori, bestelako poloniar talde sozialista gehienak bezala, laster zatitu zen nazionalista eta internazionalisten artean. Hala ere, handik atera zen Luxemburgetik sortutako Poloniako Alderdi Sozialdemokraziaren sorrera-nukleoa^[42].

Zabalpenerako beste faktore bat martxan jarri ziren nazioarteko kanpainak ditugu. Halako kanpainak (adibidez, zortzi orduko lanegunaren ingurukoak) ez zioten banderarik eman nazioarteko mugimendu sozialistari (aldarrikapena existitzen zen lehenagotik), baina internazionalismoa frogatzeko aukera bat eskaini zioten. «Zortzi orduko laneguna» nazioarteko langileen aldarrikapena izan zen XIX. mendean. Marxek *Kapitala* lanean jada azaltzen du 1866an AEBko langileek eskaera hori egin zutela (Baltimorekoek, zehazki), I. Internazionaleko langileek baino zertxobait lehenago^[43]. Marxek dio aldarrikapena «ozeanoaren bi aldeetan, *instintiboki*» azaldu zela, hau da, aldarrikapenak erakundetze formalen aurretik zihoazen orduan ere –Marxek, 1875ean «Gothako Programari Kritika» liburuxkan, «lanegun arrunta» aldarrikatzea eta «arrunta» horren ordu kopurua ez zehaztea leporatu zion Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata batuari^[44]–. Aldarrikapen hori oso ezaguna izan zen II. Internazionale sortu aurreko egunetan. Kontuan izan behar da 1886an Chicagoko istiluak izan zirela, eta horren ostean Estatuak bost langile hil zituela, zortzi ordutako lanegunaren inguruko protesta baten testuinguruan^[45]. Igor Krivoguzen arabera, gero eta langile gehiagok lortu zuten zortzi orduko laneguna izateko eskubidea. Zehazki, 1885ean AEBn 185.000 langile zeuden

erregimen horretan^[46], eta Coleren arabera Australian jada legezkoa zen jardunaldi hori^[47]. Zortzi orduko lanegunaren aldeko protesta hain ezaguna zen, ezen normalean toki batean manifestazio handi bat egiten bazen (eta batez ere istiluekin edo atxilotetekin bukatzen bazen), elkartasun mitinak egiten baitziren beste herrialdeetan^[48]. Coleren arabera, 1888ko Londreseko sindikatuen arteko nazioarteko topaketak zortzi orduko lanegunaren aldeko mozio bat aurkeztu zuen^[49]. Ez da harritzekoa, beraz, 1889an, 1890eko maiatzaren lehenerako nazioarteko manifestazio baten ideia piztu zenean, ideia horrek onarpen handia izatea. II. Internazionalek, sorrera-bilera horretan, oso presente izan zuen zortzi orduko lanegunaren aldeko kanpaina, ez soilik haren aldeko mozio bat aurkeztu zuelako, baizik eta baita gai horrekiko berariazko kanpaina egingo zuen aldirikari bat fundatu zutelako ere^[50].

Garai horretako beste eskakizun bat sufragio unibertsal eta parekidearen ingurukoa zen. Herri gehienetan, sufragioa gizon batzuei soilik mugatua zegoen (ez gizon guztiei, baizik eta jabeiei). Igor Krivoguzen arabera, 1890eko hamarkada hasi zenerako, Frantziar, mila lagunetik 265k bozkatu zezaketen, Italian 82k, Austrian 73k, Suedian 62k, Herbeheretan 30ek eta Belgikan 22k^[51]. Gainera, beste herrialde batzuetan, Alemanian eta Britainia Handian esaterako, nahiz eta gizonetzkoentzako sufragio unibertsala existitu, hura ez zen parekidea, hau da, klase sozialaren arabera, bozkak modu ezberdinean balio zuen^[52]. Jakina, horrek bide eman zion bestelako nazioarteko aldarrikapen bati, hain zuzen ere, *benetako* sufragio unibertsal –ez soilik «gizonetzko»– eta parekidearen aldarrikapenari (aldarrikapen horrek hasi zuen XX. mende hasieran Martxoaren Zortziaren aldarrikapena).

Gainera, horrekin lortuta, kontuan hartu behar ditugu eskubide demokratikoak hertsatzearen kontrako kanpainak eta mobilizazioak: Alemanian «Lege Antisozialista» deitutakoak 1890era arte iraun zuen^[53], eta horrek, jakina, elkartasunezko kanpainak eragin zituen.

Bestalde, hain ezaguna ez bada ere, inperialismoaren kontrako zenbait kanpaina ere jarri ziren martxan une horretan. Adibidez, Igor Krivoguzek aipatzen du «1880ko hamarkadaren bigarren erdian» alemaniar, frantziar eta espainiar sozialistek euren herrietako gobernuetako elementu agresiboen kontrako «kanpaina bateratuak» hasi zituztela, edo urte horietan herri askotako sozialistek Britainia Handiak Egipton egindako esku-hartze inperialista salatzeke kanpainak ere gidatu zituztela^[54].



Haymarket matxinada, 1886ko maiatzaren 4ean Chicagoko Haymarket plazan



Zabalpenerako beste faktore bat martxan jarri ziren nazioarteko kanpainak ditugu. Halako kanpainei (adibidez, zortzi orduko lanegunaren ingurukoak) ez zioten banderarik eman nazioarteko mugimendu sozialistari (aldarrikapena existitzen zen lehenagotik), baina internazionalismoa frogatzeko aukera bat eskaini zioten

ZEIN IZAN ZEN I. INTERNAZIONALEKO ETA II. INTERNAZIONALEKO ORDEZKARIEN ARTEKO DIFERENTZIA JATORRI GEOGRAFIKOARI DAGOKIONEZ?

Zaila da langile-internazionalismoaren aurrerapena objektiboki neur-tzen. Kasu honetan, I. Internazionalela desagertu osteko eta II. Internazionalela agertu arteko nazioarteko elkartasun-sareen lana ona edo txarra izan zen neurtzeko, II. Internazionalan ordezkaturako herrien kopurua handitu egin zela aztertu behar da.

I. Internazionalaren bileretara hasieran oso kide gutxi joaten ziren, eta herrialde gutxitakoak; hogeit edo hogei hamar ordezkari bilerak ziren, lauzpabost herrialde europarretakoak. 1868ko Bruselako Biltzarrean herrialde gehiagok parte hartu zuten: zazpi herrialdetako ordezkariak agertu ziren. 1969an lehen ordezkari ez-europarra bertaratu zen (Estatu Batuetako ordezkari bat), eta, azkenik, 1872ko Hagako Biltzarrean, hamaika herrialdeetako 69 ordezkari izan ziren (hamabi izan zitezkeen herrialdeak, aurreko bilkuretan parte hartu zuen Italia agertu izan balitz). Biltzar hori izan zen I. Internazionalaren biltzarretan aniztasun handiena izan zuena, behintzat herrialdeen kopuruaren aldetik. Biltzar horretan txekiar eta hungariar sozialistak agertu ziren, eta bi herrialde horiek osatzen zuten, hain zuzen ere, I. Internazionalaren ekialdeko muga^[55].

II. Internazionalan (adibidez, lehen biltzarrari so egiten badiogu, 1889an egin zenari) I. Internazionalan parte hartu ez zuten herrialde askotako ordezkariak bertaratu ziren, besteak beste errusiarrak (hainbat alderditan sakabanatuak), errumaniarrak eta armeniarrek^[56]. Hurrengo bilerak hedapen handiagoa izan zuen bulgariarrak, serbiarrak, bai eta ozeaniar kontinenteko ordezkariak (australiarrak) agertu baitziren^[57]. Hala ere, ordezkariak ez ziren beti iraunkorrak izaten, batez ere lehen urteetan. Esaterako, 1891ko II. Biltzarrean ez zen errusiar ordezkari

karirik izan. Izan ere, Plekahnov marxisten buruak haxe adierazi zuen: «Sozialismo zientifikoa gure lanke-ta propioa egin gabe agertzen bagara, errusiar ordezkariak soilik itxurazkoa litzateke»^[58].

Aniztasun horren adierazle izan zen bertaratuen artean zenbat erakunde zeuden: 20 herrialdeetako sozialistak bildu ziren, baina 300 erakunde zeuden ordezkaturak, zenbat arrazoi zirela medio. Alde batetik, aniztasun ideologiko handia zegoen. Bestetik, «alderdiez» gain –kasu askotan «alderdi» horiek benetako alderdiak baino gehiago erakundeak edo klubak ziren, sarritan hiri bakarrera mugatutakoak–, sindikatuak ere gonbidatu zituzten.

Zenbat ordezkari bildu ziren 1889ko biltzar horretan? Igor Krivoguzen arabera, uztailaren 14an 393 ordezkari zeuden (kontuan izanik 300 erakunde zeudela ordezkaturak) eta hurrengo egunetan «400 baino gehiago izan ziren»; Coleren arabera, 391 ziren ordezkariak^[59]; eta Priestlanden arabera, 392, 23 herrialdetatik etorritakoak^[60].

Hurrengo urteetan, hazi egin zen II. Internazionalako bilkuretako ordezkarien kopurua, bai eta ordezkaturako herrialdeen kopurua ere: 1891n 16 herrialdetako 372 ordezkari ziren, 1893an 20 herrialdetako 438 ordezkari, eta, 1896an, 22 herrialdetako 700 ordezkari^[61]. Hala ere, kontuan izan behar da biltzarrari ostatu ematen zion herrialdeak ordezkari gehiago bidaltzen zituela. Hori gertatu zen Bruselako II. Biltzarrean (1891), Züricheko III. Biltzarrean (1891), bai eta Londreseko IV. Biltzarrean ere (1896)^[62].

Haatik, II. Internazionalak zenbait muga topatu zituen Europaz haratago zabaltzeko: marxismoa Europaz kanpo «europar tradizioa» edo «europar populazioko» tokietara iritsi zen soilik. Kontrara, herrialde kolonial autoktonoetara iristen zertxobait atzeratu zen (Asiako herrialde ez-anglosaxoiotara, Afrikara...). Andreucciren arabera, XX. mendean heldu zen lehenbizi Japoniara, eta, gero, Txinara –egile honen arabera, Errusiako Iraultzaren aurretik iritsi zen marxismoa Txinara. Horrela, Maoren iritziaren aurka egin zuen. Hala ere, Txinak ez zuten ordezkariarik izan II. Internazionalako biltzarretan^[63].

Muga hori izan bazen ere, kontuan hartu behar da II. Internazionalak sozialismoa Europa osora hedatu zuela, Mendebaldeaz haratago: Europako ekialdera, Errusiara, Balkanetara eta Eskandinaviara. Horrez gain, Europaz gaindiko ordezkariak erregulariki agertzen ziren bertara. Bestetik, hurrengo kapituluan ikusiko dugun moduan, II. Internazionalela, nahiz eta ideologikoki homogeneoa ez izan, erregularitasun bat izan zuen erakundeei dagokienez: bertako kide izatea *premia* gisa ikusten zen *borondatezko* afera bat baino gehiago. Ideia horrek Internazionalaren prestigioa handitu zuen.



Kontuan hartu behar da II. Internazionalak sozialismoa Europa osora hedatu zuela, Mendebaldeaz haratago

NOLA GARATU ZEN II. INTERNAZIONALEAN, ZEREN INGURUAN IZAN ZIREN LEHEN EZTABAIDAK?

Eztabaidak izan ziren II. Internazionaleak praktikan hartu behar zuen formaren inguruan. Irakurleari ziu-rrenik ezagunak izango zaizkio III. Internazionalean «Leninek (ustez) inposatutako» 21 baldintzak. Bada, II. Internazionalean ere halako eztabaidak gertatu ziren. Izan ere, «mundu mailako alderdi iraultzaile» edo «alderdi ezberdinen nazioarteko federazio» izango ote zen inguruko eztabaidak ere izan ziren. Zenbaitek lehenengo posturaren alde egin bazuen ere, ez zuten nahi Internazionale «mundu mailako alderdi bakar» bihurtzea (alemaniarrek, adibidez; horiek ziren garai horretako alderdi sozialistarik handiena). Nahiago zuten «alderdi sozialisten federazio» gisa gera zedin. Horrez gain, hartu ziren erabaki adostuen inguruan alderdi bakoitzaren autonomia handitzearen jarraitzaile sutsuena Alemaniako Alderdi Sozialista izan ohi zen, esaterako, Maiatzaren Lehenaren inguruan nola jokatu erabakitzeko autonomia^[64]. Are gehiago, nahiz eta II. Biltzarrean (1891) II. Internazionaleak bere burua «nazioarteko alderdi sozialista» gisa definitu, horrek ez zuen inplikazio praktikorik izan. Kontrara, garai hartan Internazionalaren sektore batek izan zuen nahien isla besterik ez litzateke^[65].

Ikusi dugunez II. Internazionalaren barruan aniztasun handia izan zen sorrera unean, are gehiago 1891n Bruselako II. Biltzar Nagusia egin zenean. Bigarren bilera horretan posibilstak agertu ziren, eta, ondorioz, Internazionalaren aniztasuna handitu egin zen. Horrez gain, bigarren faktore batek ere eragin zuen aniztasunean: nahiz eta alderdi bateratuak sortzeko prozesua abian izan, herrialde askotan ez zen alderdi sozialista bateraturik. Bila-kaera hori soilik Alemanian, Austrian (1889an sortua^[66]), Hungarian^[67], Belgikan eta Espainian gertatu zen. Kontrara, Frantzia, Britainia Handian,

Polonian, Italian, Herbehereetan, eta Errusian oraindik ez zen gertatu. Beraz, oso posible zen hurrengo biltzarretan herrialde batetik hainbat erakunde edo alderdi ezberdin ateratzea. Bestetik, II. Internazionalan, alderdi sozialistez edo «erakunde politiko sozialistez» gain, sindikatuak ere presente zeuden. Herrialde askotan sindikatuak ziren langileen erreferente (ez alderdiak). Kasu askotan «sindikatu» edo «langile batasun» terminoen definizioak oso zabalak izan zitezkeen eta askotan ez zetozen bat sindikatu moderno baten definizioarekin. Adibidez, 1896ko Londreseko IV. Biltzarrean, frantziar ordezkariaren barruan, sindikatuez eta alderdiez gain, tokiko «ganbera sindikalak», tokiko langile batasunak, ikasleen elkarteak, «bourse du travail» izeneko langile-kontseiluak, propaganda-elkarteak eta komunikabideak agertu ziren^[68].

Sindikatuaz gain, alderdien artean ere aniztasun ideologiko handia zegoen zenbait herrialdetan. Ez zen batere arraroa lehen urteetan herrialde baten ordezkarietan alderdi edo erakunde ezberdinak izatea. Hori gertatu zen, adibidez, Frantzia, non alderdi sozialista bateratua oso berantiarra izan zen –Italian kontrako kasua gertatu zen, Internazionaleak alderdi bakarra sortzea ekarri baitzuen–. Era berean, herrialde batzuetako ordezkarietaz zenbait anarkistek ere parte hartzen zuten. Hasierako urteetan, zenbait ordezkariak anarkisten nagusitzan zeuden^[69] –Holandako Sozialdemokraten Liga, izena izen, erakunde anarkista bat zen. Izan ere, anarkistak izan ziren nagusi 1896 arte–. Beste zenbait kasutan, sindikatu batzuek ordezkari anarkistak zeramatzaten. Aintzat hartu behar dugu zenbait herritan (batez ere alderdien eta sindikatuen garapen txikiagoa zuten herrietan) anarkisten eta marxisten arteko muga-lerroak ez zirela hain garbiak –adibidez, Hungariara tradizio intelektual marxista handi baten tresna izan da, eta Alderdi Komunistaren Manifestua hungarierara itzuli zuen lehena Ervin Szabo anarkista izan

zen^[70]–. Baina «aniztasun» hori ez zen soilik anarkistekin gertatzen. Adibidez, soreliarrak edo «sindikalista iraultzaileak», Frantzia bertan blanquistak eta jakobinoak ageri ziren, Ingalaterran erreformistak eta *guildistak*^[71], bai eta *narodniki* edo populistak Errusian (gainera horiek beren ordezkariak propioa izan zuten II. Internazionalean I. Mundu Gerraren garaian desagertu arte). Poloniarren artean ere zatiketak izan ziren, zehazki joera nazionalistak (Pilsudskiren jarraitzaileak) eta internazionalistak (Rosa Luxemburgen aldekoak) zituztenen artean^[72]. Egia da hasierako heterogeneotasun horrek hurrengo urteetan sinplifikatzera egin zuela, bai eta marxistak nagusitu zirela 1914ko zatiketa handira arte. Alabaina, hasierako aniztasun hori ez zen sekula desagertu. Beraz, nolabait II. Internazionale «marxista» dela esan genezake, betiere konbentzio linguistiko moduan eta sinekdoke bat egiten ari garenaz kontziente bagara, hau da, osotasunaren izena ematea zati bati (zati handi bat, handiena bazen ere), kontuan izanik aipatu ditugun alderdi batzuk bukaerara arte izan zirela Internazionalaren kide.

1891ko II. Biltzarrean marxisten eta posibilisten arteko talkak izan ziren; protagonistak Émile Vandervelde (antolatzailea, posibilisten aldekoagoa) eta August Bebel alemaniarra (marxista) izan ziren. Vanderveldek langileen aldeko babes-legegintzaren aldeko txosten bat aurkeztu zuen eta hura Internazionalaren programa izan zedin nahi zuen. Bebelen erantzuna zion mugimendu sozialistaren lana ez zela langile-legegintzaren alde borrokatzea, baizik eta langileei azaltzea gizartearen bidegabekeriaren erroak non ziren, hala «gizarte mota hau ahalik eta azkarren desagerrarazi dezaten». Bebelen mozioa garaile atera zen eta Internazionaleak bere helburutzat «langile klaseak botere politikoa eskuratzea» jarri zuen. Hala ere, ez zuen metodorik ezarri, ezta geroago erreformisten eta iraultzaileen eztabaida-bazka izango zen Estatuaren eta botereren arteko



Hasierako aniztasun hori ez zen sekula desagertu. Beraz, nolabait II. Internazionalela «marxista» dela esan genezake, betiere konbentzio linguistiko moduan eta sinekdoke bat egiten ari garenaz kontziente bagara, hau da, osotasunaren izena ematea zati bati

definiziorik ere (esaterako, austriar sozialistek sufragioaren eta parlamentarismoaren aldeko aldarriak plazaratu zituzten). Beste eztabaida puntu bat gudaren aurkako posizioan izan zen. Kasu horretan holandar filoanarkistekin izan zen xextra, posibilistekin beharrean. Aurkeztutako mozioan potentzia handien chauvinismoa salatu zen eta gehiengoak herrialdeen arteko bakearen alde egin zuen. Holandarrei dagokionez, «eraso-gudaren eta defentsa-gudaren» arteko bereizketa salatu zuten eta bakearen alde borrokatzeko deia baino gehiago, guda iraultza azkartzeko aukera moduan aprobetxatzearen alde egin zuten. Horrez gain, biltzar horretan adostasun osoa lortu zen puntu hauetan: emakumeen bozka eskubidean, sufragio unibertsal eta parekidean, antisemitismoaren aurkako borrokan eta grebak eta boikotak tresna sindikal gisa onartzean^[73].

Homogeneotasun ideologikoaren aldeko lehen pausoa 1893ko III. Biltzarrean gertatu zen. 1893ko III. Biltzar Nagusian, anarkistak kanpoan uzten zituen ebazpen bat onartu zuten. Ebazpenak hala zioen: «Biltzarrak langile-batasun guztiak eta langile-antolaketa eta -ekintza politikoa onartzen dituzten alderdi zein erakunde sozialistak onartzen ditu». Hau da, *sindikatuak* onartzen zituzten, baina alderdi edo erakunde izanez gero, «ekintza politikoa» ezinbesteko baldintza zen. Gainera, III. Biltzar horretan alderdi sozialistak instituzioetan egotearen aldeko eta hauteskundetan parte hartzearen aldeko erabaki bat hartu zen. Jakina, hori anarkisten iritziaren kontrakoa zen^[74]. Haatik, anarkista batzuk bertaratzen jarraitu zuten «langile sindikatuetaordezkari» moduan. Adibidez, 1896ko Londreseko IV. Biltzarrean Louise Michel «italiar ordezkari» gisa agertu zen eta Errico Malatesta «frantziar ordezkari» moduan^[75]. Baina 1896an, 1893an Zürichen erabaki zena berrestez gain, herrialde bakoitzeko ordezkariak zuten zorroztasuna hantitzeko erabakia hartu zuten (horrek herrialde bakoitzeko sozialisten arteko

egoera politikoa «sinplifikatzeko» ondorioa izan zuen). Erabaki horrek Holandako Sozialdemokraten Ligak (erakunde anarkista zen) II. Internazionala uztea izan zuen ondorio^[76].

II. Biltzarrean alderdi sozialistak nonahi eratzea aldarrikatu zen, eta III. eta IV. Biltzarretan homogeneotasunaren aldeko errebindikazioak egin ziren. Horrek herrialde batzuetan alderdiak sortzea eta beste batzuetan alderdien arteko batasuna gauzatzea azkartu zuen. Adibidez, Italiako Alderdi Sozialista 1891n eratu zen, nahiz eta lehen alderdi sozialistak 1882an sortu. Frantziar prozesua pixka bat gehiago berandatu zen, lehen batasuna gertatzeko XX. mendera igarotzea itxaron behar izan baitzuten: marxisten eta blanquisten arteko batasuna 1905ean gertatu zen, eta Langile Internazionalaren Frantziar Atala (SFIO) izen esanguratsua hartu zuen. Dotrina baino gehiago, Langile Internazionalak Frantziar mintzakide bakarra izateko desioa izan zen batasunerako motibo nagusia^[77]. Hala ere, esan beharra dago Frantziar batasun-prozesuan beste bi arrazoik ere eragina izan zutela: alde batetik, garai horretan greba-bolada bat gertatu zen. Bestetik, Alexandere Millerand sozialista-erreformista Gubernuan sartu zen, zeinak fakzio anti-erreformistak hurbildu zituen.

III. Biltzarrean auzi gehiago izan ziren mintzagai. Horien artean, zortzi orduko lanegunaren aldeko kanpainarekin jarraitzea erabaki zuten. Beste hiru gai ere agertu ziren: lehenik, gudaren inguruko gaia, non marxisten eta holandar filoanarkisten artean talka gertatu zen berriz. Bigarrenik, sindikalgintzaren inguruko eztabaida izan zen: alemaniar sozialistek sindikatuak «kapitalismoaren aurkako tresna» gisa definitu nahi izan zituzten. Britainiar sindikatuentzat, kontrara, sindikatuak «etorkizuneko gizartearen eredu» ziren, Owenen sozialismo utopikoaren tankeran. Adostasunen faltan, azkenean belgikar ordezkariaren erdibideko mozio bat bozkatu zuen biltzarrak auzi horri buruz. Eta,

hirugarrenik, lehen aldiz eztabaidatu zen propio emakumeen auzia, emakumezko ordezkariak protagonista zirelarik eta modu integral batean, helburuak eta taktikak ere kontuan hartuta –aurreko bilkuretan sufragio unibertsal eta parekidea, emakumeena barne, eskatzera mugatu ziren. Gainera, hitza gehienetan gizonezko hizlariak zuten. Alemaniar marxistek (Zetkin, Louise Kautsky eta abarrek) emakumezko langileek langile antolakuntzan parte hartzea eta zortzi orduko lanegunaren alde (sei, neska nerabeen kasuan) borrokatzea deitu zuen mozio baten alde egin zuten. Alabaina, Eugénie Claeys belgikarrak beste posizio bat aurkeztu zuen: bere ustez, emakumezkoak ezin ziren gizonezkoekin batera aritu erakunde berberetan. Emakumeek gizonezkoak «etsai» zituztela defendatzen zuten, eta, ondorioz, emakumezkoek beren aparteko antolakundeak sortzea defendatzen zuten^[78]. Agian hori da XX. mende hasieran ezkerreko emakumeak marxista eta sufragisten artean zatitu zituen gidalerro ideologiko nagusiak eztabaida publiko batean hain markatuta agertu ziren lehenengo aldia.

Bestalde, IV. Biltzarrean, anarkistekiko eztabaidaz gain, adostasuna handiagoa izan zen. Internazionalak, bai bere barnean, bai eta kanpora begira ere, homogeneotasun handiagoa islatzen zuten. Biltzar horretan ebazpen hauek bozkatu zituzten: kolonialismoaren kontrako ebazpen bat, ekintza politikoa eta klase-independentziaren aldeko beste ebazpen bat, hezkuntzaren aldeko ebazpen bat eta emakumeen parte hartzeko politikoa aldeko beste ebazpen bat. Hezkuntzaren ebazpenean eztabaida bat piztu zen Sydney Webb eta Keir Hardie britainiarren artean. Hardieren ustez, ikasketak unibertsalki subentzionatzeko Webben nahiak, unibertsitate ikasketak barne, meritokrazia baztertzaila eta eskolan trebeagoak ziren umeen alde egitea zekarren^[79].

1890eko hamarkadan kapitalismoa suspertzen hasi zen, eta horrela, espantsio-ziklo berri bat hasi zen^[80]: hirietarako migrazio-fluxuak aurrera jarraitu egin zuen, industriaren ekoizpenak lehen sektorearena bikoiztu zuen, eta nazioarteko salerosketa, bizkortu ez ezik, hedatu ere egin zen. Alemaniaren kanpo-salerosketa, adibidez, 1910ean 1880an zena baino bizpahiru aldiz handiagoa zen^[81]. Bestalde, Estatuek protekzionismorantz eta industria produkzioa bai eta legislazio soziala handituzerantz jo zuten. Horrez gain, iraultza teknologikoa gertatu zen^[82]. Horrek guztiak marxismoan ondorioak izan zituen, ez hainbeste alderdi sozialista edo marxisten hazkundera geratu egin zuelako, baizik eta marxismoaren inguruan nolabaiteko errebisionismoa eragin zuelako^[83]. Zenbait marxistak marxismoaren axioma batzuk jomugan jarri zituzten eta beren corpus propioa osatu zuten. Errebisionismo horien adibide ditugu Bernsteinen erreformismoa^[84] eta Sorelen «mitoaren inguruko mobilizazioa»^[85] –horren parte batean kritika liberalak nolabaiteko eragina izan ote zuen iradoki dezakegu, garai horretan argitaratu baitzen austriar liberalismoaren aita-ponteko Böhmer-Bawerken *Sistema marxistaren bukaera* liburua (*La conclusión del sistema marxiano*, 1895)–. Hazkunde garaietan marxismoa birplanteatzea edota errebisioak agertzea ziklikoki gertatu da historian zehar. Nolabaiteko diferentziak alde batera utzita, antzeko fenomeno bat aipa genezake II. Mundu Gerraren osteko Ongizate Estatuen Europar, «marxismoaren krisiaz» hitz egiten hasi zirenean. Era berean, bertan agertu ziren kapitalismoaren formulazio berriak, freudomarxismoa eta Frankfurteko Eskola, eta, gerora, postmodernismoa edo subjektuaren deuseztapena eta subjektu anitzak agertzea (oharra: 1970eko hamarkadatik aurrera sortutakoak zerikusi handiagoa izan zuen sindikalismoaren porrotarekin edota kapitalismoaren 1990etik aurrerako garaipen politikoarekin kapitalismoaren hazkunde

ekonomikoarekin baino). Gai horrek hemen azaldu behar duguna baino inguru handiagoak hartzen ditu, eta hemen utziko dugu. Hala ere, interesgarria iruditzen izan zait aipatzea XIX. mende bukaerako egoera sozialari argazkia ateratzeko eta baita ere errebisionismoaren agerpenaren inguruko gogoeta bat egiteko.

Agian irakurleari harrigarria izango zaio artikulu honetan orain arte II. Internazionalaren *Komite Zentralik* edo *Batzorde Nagusirik* aipatu ez izana. Ez da ahanztura kontua; lehen hamarkada haietan II. Internazionalak ez zuen inolako egitura propiorik izan. 1900ean onartu zuten II. Internazionalak egitura iraunkor bat izan zezan: Bureau Sozialista Internazionala sortu zen, Émile Vandervelde belgikarra buru. Halere, II. Internazionala ez zenez «nazioarteko alderdi iraultzaile» bat, Bureau Internazional hori ez genuke Komite Zentraleko zuzendari batekin nahasi behar. Oso organo murrizta zen kideen zein eskumenei dagokienez, bere ardurak biltzarren arteko korrespondentzia ordenatzea eta biltzarren arteko antolakuntza-lanak izan baitzen^[86]. Nicolao Merkerrek esan zuen moduan, Bureau hori «informazio-bulego bat besterik ez zen»^[87]. Alor horretan, I. Internazionalak askoz ere gehiago izan zuen «alderditik». Izan ere, Kontseilu Nagusi bat ere izan zuen (haren kontrola eskuratzeak hainbeste gatazka eragin zituen). III. Internazionala ere zuzendaritza-komitedun Internazional gisa planteatu zen hasieratik; are gehiago, aurreko biak baino koherentzia handiagoa izan zuen, 21 puntu famatuak ezarri ziren eta. Beraz, gai horri dagokionez, II. Internazionala salbuespena dugu. Salbuespen hori azaltzeko arrazoi bat eman genezake: bai I. internazionala, baita III. Internazionala ere iraultza-espantsio egoera batean sortu ziren. Hain zuzen, I. Internazionala 1863ko Poloniako matxinada gertatu zenean sortu zen, zeinak Europar krisi politiko bat pizteko perspektiba ekarri zuen, eta III. Internazionala, aldiz, Errusiar Iraultzaren eta 1918tik

aurrera Europar zabal zitekeen iraultza sutearen babespean. Bietan, beraz, «zetorren iraultzarako nazioarteko alderdi» gisa sortzeko intuizio bat zegoen. Ordea, II. Internazionala sortu zen garaian ez zen iraultzarik ikusten ortzi-mugan, baizik eta eskaera sindikalak (zortzi ordutako laneguna) eta eskakizun antierpresiboak (Alemaniako Lege Antisozialista kentzea). Une horretan, ez zegoen agian nazioarteko alderdi kohesionatu baten hainbesteko beharrik. Alabaina, halako egoeretan aipatzekoak dira gizon-emakume haiek nazioarteko erakunde bat sortzeko izan zuten bulkada eta kontzientzia internazionalista.



**1890eko
hamarkadan
kapitalismoa
suspertzen hasi
zen, eta horrela,
espantsio-ziklo
berri bat hasi zen.
Horrek guztiak
marxismoan
ondorioak izan
zituen**



I. Internazionaleak askoz ere gehiago izan zuen «alderditik». III. Internazionaleal ere zuzendaritza-komitedun Internazionaleal gisa planteatu zen hasieratik



Mugimendu sozialista ezberdinek hori bera sortzeko izan zuten adorea eta kontzientzia internazionalistak erakusten digu marxismoaren, hau da, Komunaren argi hori ez zela itzali. Historikoki injustizia bat da haren sorrera posible egin zutenentzat bai eta euren sakrifizioarentzat ere II. Internazionaleal bere heriotzara soilik murriztea

ONDORIOAK

Artikulu honetan, ahal izan dugun moduan, II. Internazionalearen hasierako urteetako aspekturik oinarritzekoak landu nahi izan ditugu: I. Internazionalearekin izan zituen loturak, bi internazionalen arteko sareak (nazioarteko sare bat berrosatzea posible egin zuten), internazional haren osaketa eta bertako barne-eztabaidak.

Langile mugimenduan agian gutxienez ezagutzen dugun Internazionaleal da II. Internazionaleal, egungo ikuspegitik gutxienez. Beharbada ez zelako langile mugimenduaren mugarri historiko batekin bat etorri, edo beharbada, lider historikorik ezagunenak ez zirelako lotzen II. Internazionalearekin (Engels soilik, hasieran), eta, esan bezala, «borrokaturik gabeko porrot» batekin bukatu zuelako bere ibilbidea. Zergatik, bada, ekarri II. Internazionaleal hona?

Materialismo historikoa gure egiten badugu, historiaren materialtasuna eta horren dimentsio osoa, gure egin behar ditugu joan-etorriak eta faktore anitzetako eraginak, ez soilik juzku moralak edota fatalismoa marruskatzen duen linealismo huts bati lotu. Fenomenoak zergatik sortu ziren eta zertara eramantitzaketen aztertzea ere badakar materialismo historikoak. II. Internazionaleal irakaspen gogoangarri batzuk utzi dizkigu, batez ere haren sorreran eta bai eta haren sorrera eragin zuten baldintzak eraikitzeak «historiaurre» garaian ere. Mugimendu sozialista ezberdinek hori bera sortzeko izan zuten adorea eta kontzientzia internazionalistak erakusten digu marxismoaren, hau da, Komunaren argi hori ez zela itzali. Historikoki injustizia bat da haren sorrera posible egin zutenentzat bai eta euren sakrifizioarentzat ere II. Internazionaleal bere heriotzara soilik murriztea. ●

OHARRAK

[1] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-2. lib.: *Marxismo y anarquismo 1850-1890*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko DF, 1958 [1953], 135. or.

[2] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-2. Lib.: *Marxismo y... op. cit.*, 190. eta 201. orr.

[3] WALICKI, Andrzej: «El marxismo polaco entre los siglos XIX y XX» in HOBSBAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-3. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (1) (153-183. orr.). Bruguera. Bartzelona, 1980 [1979], 157. orr.

[4] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-2. Lib.: *Marxismo y... op. cit.*, 165-166. orr.

[5] KRIVOGUZ, Igor: *The Second International 1889-1914*. Progress Publishers. Mosku, 1989 [1964], 53-54. eta 58. orr.

[6] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 35. or.; MERKER, Nicolao: *Il socialismo vietato*. Biblioteca di Cultura Moderna Laterza. Erroma-Bari, 1996, 8-14. or.; eta ROVAN, Joseph: *Histoire de la social-démocratie allemande*. Éditions du Seuil. Paris, 1978, 75. or.

[7] RÉBÈRIOUX, Madeleine: «El debate sobre la guerra» in HOBSBAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-6. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (4) (287-345. orr.). Bruguera. Bartzelona, 1981 [1978], 303. or.; eta TEGEL, Susan: «The SPD in Imperial Germany, 1817-1914» in FLETCHER, Roger (zuz.): *Bernstein to Brandt. A Short History of German Social Democracy* (16-25. orr.). Edward Arnold. Britainia Handia, 1989 [1987], 17. or.

[8] Bakearen eta Askatasunaren aldeko Nazioarteko Liga XIX. mendean errepublikano ezkertiarrek eta zenbait anarkistek sortutako erakunde bat zen, *Europako Estatu Batuak* goiburu zuena.

[9] Liburuxkaren lehen kapituluaren bosgarren puntuan aurkitzen da kritika hori.

[10] Berriki agertu dira nazionalista batzuk, zeintzuen arabera «nazioarteko proletalgoa» ez dagoen eta proletalgoa «nahitaez», «nazio jakin batetako proletalgoa» omen den. Jakina, patriotismoa goraipatzeko aitzakia gisa hartzen dute sozialismoa. Komeni zaie Marx errepasatzea.

[11] Colek dioenez, bertan ere agertu ziren ordezkari estatubatuarrak. COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda Internacional 1889-1914*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko DF, 1959 [1956], 17-18. orr.; eta HAUPT, Georges: «Marx y el marxismo» in HOBSBAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-2. lib.: *El marxismo en los tiempos de Marx* (2) (197-233. orr.). Bruguera. Bartzelona, 1980 [1979], 206. or.

[12] KRIVOGUZ, Igor: KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 31. orr.

[13] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda... op. cit.*, 18-19. orr.

[14] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 43-46. orr.; eta COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda... op. cit.*, 21. or.

[15] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 32-33. orr.

[16] ANDREUCCI, Franco: «La difusión y vulgarización del marxismo» in HOBSBAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-3. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (1) (15-88. orr.). Bruguera. Bartzelona, 1980 [1979], 40. orr.

[17] PRIESTLAND, David: *Bandera roja. Historia política y cultural del comunismo*. Crítica. Bartzelona, 2010 [2009], 70. orr.

[18] STEINBERG, Hans-Josef: «El partido y la formación de la ortodoxia marxista» in HOBSBAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-4. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (2) (103-126. orr.). Bruguera. Bartzelona, 1980 [1978], 117-118. orr.

[19] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 17. or.

[20] Parrafo hauetako datuak: KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 21-22. orr.

[21] Krivoguzen arabera, Ingalaterra soilik kontuan hartuz gero, 1885-1889 bosturtekoan aurreko bosturtekoaren greba-kopurua bikoiztu egin zuten.

[22] MOSES, John A.: «Socialist Trade Unionism in Imperial Germany, 1871-1914» in FLETCHER, Roger (zuz.): *Bernstein to Brandt. A Short History of German Social Democracy* (26-34. orr.). Edward Arnold. Britainia Handia, 1989 [1987], 28. or.

[23] Engelsek Aldolf Sorgeri 1886ko apirilaren 29an bidalitako gutuna.

[24] Honen erakusle da, 1886ko Haymarketeko masakrea Chicagon, Illinois estatuko hirian gertatu izana, zortzi orduko lanegunaren aldeko manifestazio batean, hain zuzen ere.

[25] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* op. cit., 25. orr.

[26] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 22-23. eta 25. orr. John A. Mosese pixka bat jaitsi egiten du data hauetarako alemaniar sindikatutako langile-kopurua eta 240.000 zirela dio. MOSES, John A.: op. cit., 28. orr.

[27] ROVAN, Joseph: op. cit., 61. orr.

[28] Egun ez dago Marxen obra osoen edizio bat bera ere Marxen lan ezagun denak osorik biltzen dituenik. Ingelerazko *Collected Works* proiektuak, 1975ean hasi zenak, lana 2030ean bukatuko duela estimatu du.

[29] Paragrafo honetan eta hurrengoetan esaten direnen inguruan, xehetasun gehiago hemen: HOBSBAWM, Eric: *Cómo cambiar el mundo. Marx y el marxismo, 1840-2011*. Crítica. Bartzelona, 2016 [2011], 185-204. orr.

[30] HOBSBAWM, Eric: *Cómo cambiar...* op. cit., 188. orr.

[31] ROVAN, Joseph: op. cit., 62-63. orr.

[32] HOBSBAWM, Eric: *Cómo cambiar...* op. cit., 190. orr.

[33] PRIESTLAND, David: op. cit., 70-71. orr.

[34] ANDREUCCI, Franco: op. cit., 34-35. orr. Georges Haupten arabera, XIX. mendeko 70eko hamarkadan hasi ziren «marxista» etiketa erabiltzen. Orduan, ordea, filosofia baten jarraitzaile baino gehiago, Internazionalaren zatiketaren ostean, Bakuninen alde paratu ez ziren fakzioaren aldekoak izendatzeko erabiltzen zen, hau da, Marxek egindako hautu politiko

jakin batekin (Internazionalaren fakzioetako baten alde paratzea) bat zetozenak izendatzeko; ia-ia «ez-bakuninista» terminoaren sinonimoa zen. Orduan, «fakzio ez-bakuninistak» ez zuen nahikoa koherentzia ideologikorik. HAUPT, Georges: «Marx y el marxismo»... op. cit., 202-205. orr.

[35] HAUPT, Georges: «Marx y el marxismo»... op. cit., 216-219. orr.

[36] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 31. orr.; eta ANDREUCCI, Franco: op. cit., 42-43. orr.

[37] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 30. orr.; eta HAUPT, Georges: «Rôle de l'exil dans la diffusion de l'image de l'intelligentsia révolutionnaire» in *Cahiers du monde russe et soviétique*, 19. lib., 3. zkia., 235-249. orr., 1978, 238-241. orr.

[38] HAUPT, Georges: «Rôle de l'exil...» op. cit., 240-246. orr.

[39] Talde honen erbesteari buruz, adibidez, GETZLER, Israel: «Georgi V. Plejanov: El fracaso de la ortodoxia» in HOBSBAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-5. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (3) (85-125. orr.). Bruguera. Bartzelona, 1981 [1978]; batez ere 90-102. orr.

[40] HAUPT, Georges: «Rôle de l'exil...» op. cit., 237-238. orr.

[41] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 34. orr.

[42] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* op. cit., 451-452. orr.

[43] *Kapitalaren* lehen liburukiaren zortzigarren kapituluari aipatzen du hau. Hamahirugarren kapituluari aipatzen du baita Lancashireko (Ingalaterra) langileek eskaera bera egin zutela.

[44] Kritika honen laugarren (eta azken) atalean agertzen da hau.

[45] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* op. cit., 19. orr.

[46] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 20. orr.

[47] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* op. cit., 18. orr.

[48] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 36. orr.

[49] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* op. cit., 20-21. orr.

[50] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 55-57. orr.

[51] KRIVOGUZ, Igor: op. cit., 19. orr.

[52] XIX. mendearen bukaeran Alemanian ere atzerakada bat gertatu zen gizonezkoen sufragio parekidea zuten zenbait tokitan, adibidez Saxonian, bozka ez-parekidea ezarri zuten «Hiru klaseen araberrakoa» (Prusian erabiltzen zena).

[53] 1878an indarrean sartu zen Alemaniako Lege Antisozialistaren arabera, Alemaniako Alderdi Sozialistaren edozein jarduera politiko publiko, bai eta propaganda ekintza ere debekatua zegoen (bai eta jarraitzaileek euren jantzieta alderdiaren ikurra eramatea ere). Beraz, Alderdiaren jardura «hezkontzako» hitzaldi pribatueta (adibidez, ekonomiari edo soziologiari buruzko eztabaiden formaz moztututako eztabaidak antolatzea) eta hauteskundeetara eta parlamentuetara mugatu zen. Hala ere, Susan Tegelen arabera, lege hori bertan behera uzteak ez zuen esan nahi Estatuak sozialistak «barneko etsai» gisa tratatzeari utzi zionik, edo gizarte burgesak

«paria» gisa tratatzeari. TEGEL, Susan: *op. cit.*, 18. or. Joseph Rovanen arabera, Alemaniako egitura quasi-federalak, lege hori aplikatzerako orduan, estatuz estatu ñabardurak gertatzen ziren. ROVAN, Joseph: *op. cit.*, 74. or.

[54] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 34. or.

[55] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-2*. lib.: *Marxismo y...* *op. cit.*, 124., 127. eta 188-191. orr.

[56] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 48-49. orr.

[57] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 37. orr.

[58] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 106. or.

[59] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 47. or.; eta COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 17. orr.

[60] PRIESTLAND, David: *op. cit.*, 70. or.

[61] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 100. or.

[62] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 40-41. orr.; eta KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 105. eta 117. orr.

[63] ANDREUCCI, Franco: *op. cit.*, 46-47. eta 51. orr.

[64] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 24. eta 30-31. orr. Coleren arabera, «Internazionala sortzeko prestaketetan frantziarrek eta estatubatuarrek izan zuten nagusigoa, baina behin sortuta, alemaniarrek hartu zuten nagusigo hori».

[65] RÉBÈRIOUX, Madeleine: *op. cit.*, 306. or.

[66] Hala ere, Austriako Alderdi Sozialistak sorrera momentutik onartzen zuen bere barnean talde nazional ezberdinen autonomia. Prozesu hori, hemen azalduta KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 69. or. Stalinekin, bere *Marxismoa eta nazio-auzia* liburu ezagunean azaldu (eta kritikatu) zuen nola 1899an, Brnon, Austriako Alderdi Sozialistak «alderdi nazional ezberdinen federazio» bihurtzea erabaki zuen.

[67] Hungariako Alderdi Sozialista 1890ean sortu zen, Austriakoa sortu eta urte batera. KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 70. or. Alderdiaren antolaketa federala zen, Austriakoarenaren antzera (nahiz eta Austro-hungariar Inperioaren barruan Hungaria Austria baino askoz ere zentralistagoa izan).

[68] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 41. orr.

[69] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 54. or.; eta COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 35. eta 38-40. orr.

[70] Eric Hobsbawmen arabera, XIX. mende bukaeran anarkisten artean argudio marxtarrek eta kritika marxistak nolabaiteko predikamendua izan zuten. HOBBSAWM, Eric: «La cultura

europaea y el marxismo entre los siglos XIX y XX» in HOBBSAWM, Eric: *Historia del marxismo-3*. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (1) (89-152. orr.). Bruguera.artzelona, 1980 [1979]; batez ere 98-104. orr. HOBBSAWM, Eric: *Cómo cambiar...* *op. cit.*, 226. orr. Honen inguruan gogoratu behar dugu *Kapitala* errusiarara itzultzeari ekin zion lehena Mikhail Bakunin bera izan zela. Beste alde batetik, nekazaritzako *narodnikek*, errusiar eseristek zertxobait (Viktor Txernov Marxen irakurlea zen), baina batez ere Balkanetan marxismoak harremana izan zuen haiekin Hobsbawmen arabera (242-243. orr.). Gavrilko Princip ezaguna Marxen *Kapitalaren* irakurle izan zen Sarajevoko atentatua egin zuenean.

[71] *Guildismoa* edo *guild-socialism*, sozialismo «gremiala»; sektore ekonomikoa antolatutako organo autogestionatuaren federazioa aldeztu zuen ideologia bat zen, eta partzialki Owenen sozialismo utopikotik edaten zuen. Europako kontinenteko «sozialismo korporatiboarekin» edo sorelianismoarekin antzekotasun handiak zituen. Hala ere, ez zuen horien «tik» organizistarik (gerora autoritario edo atzerakoi bihurtu ziren) horiek.

[72] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista-3*. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 37. orr.

[73] Biltzar honekikoak: KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 108-114. orr.

[74] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 122. or.

[75] Igor Krivoguzen arabera, anarkistek sindikatuetakordezkari gisa agertu izana ez zen sindikatuen barne-aniztasunaren edo ideologia-lausotasunaren isla soilik, baizik eta Kropotkinen aholkuak jarraituta anarkisten taktika baten emaitza izan zen. KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 126-127. orr.

[76] COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 38-39. eta 41-42. orr.; eta KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 118-119. eta 126-113. orr.

[77] KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 72. eta 157-158. orr.; eta COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 304-309. eta 323-333. orr.

[78] Biltzar honekiko informazioa: KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 119-126. orr.

[79] IV. biltzarrekiko informazioa: KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 129-136. orr.

[80] Igor Krivoguzen arabera, langabezia handitu egin zen XIX. mendeko 90eko hamarkadako lehen erdian, eta bigarren erdian jaitsi egin bazen «kolonietatik ateratako supermozkinei esker» izan zen. KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 62. or. Eric Hobsbawmek bat egiten du garai honetako hazkunde ekonomikoa baserritarren eta kolonien bizkar egin zela esaten duen iritziarekin: HOBBSAWM, Eric: *La era del Imperio (1871-1914)*. Labor Universitaria.artzelona, 1989 [1987], 36. eta 46-47. orr.

[81] MERKER, Nicolao: *op. cit.*, 67. or. Hala ere, Igor Krivoguzen arabera, industriaren hazkunde hori, nekaritzako guneak esplotatzeaz eta nekazari txikien kontrako aberastasun-kontzentrazio politikaz egin zen. KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 63.

orr. Ideia horiekin bat dator Eric Hobsbawm. HOBBSAWM, Eric: *La era del Imperio...* *op. cit.*, 39-45. orr.

[82] HOBBSAWM, Eric: *La era del Imperio...* *op. cit.*, 39-45. eta 52. orr.

[83] Marxismoaren krisia XX. mende hasieran kuantitatiboa izan ez zela irakur daiteke, adibidez, hemen: HOBBSAWM, Eric: «La cultura europea...» *op. cit.*, 92-93. orr.

[84] Bernsteinen errebisionismoaren oinarriak hobeto azalduta, iturri hauetan: FETSCHER, Iring: «Bernstein y el reto a la ortodoxia» in HOBBSAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-4. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (2) (165-213. orr.). Bruguera.artzelona, 1980 [1978], 189-196. orr.; FLETCHER, Roger: «The Life and Work of Roger Bernstein» in FLETCHER, Roger (zuz.): *Bernstein to Brandt. A Short History of German Social Democracy* (45-54. orr.). Edward Arnold. Britainia Handia, 1989 [1987]; MERKER, Nicolao: *op. cit.*, 67-74. orr.; GUSTAFSSON, Bo: «Capitalismo y socialismo en el pensamiento de Bernstein» in ZANARDO, Aldo: *Historia del marxismo contemporáneo*-1. lib.: *La socialdemocracia y la II Internacional* (167-179. orr.). Avance.artzelona, 1976 [1974]; ANGEL, Pierre: «Estado y sociedad burguesa en el pensamiento de Bernstein» in ZANARDO, Aldo: *Historia del marxismo contemporáneo*-1. lib.: *La socialdemocracia y la II Internacional* (181-225. orr.). Avance.artzelona, 1976 [1974]; eta LIDTKE, Vernon L.: «Las premisas teóricas del socialismo de Bernstein» in ZANARDO, Aldo: *Historia del marxismo contemporáneo*-1. lib.: *La socialdemocracia y la II Internacional* (227-252. orr.). Avance.artzelona, 1976 [1974].

[85] Sorelen eboluzioa eta sorelianismoaren agerpena (marxismoarengandik bereiziz) egoera ekonomiko berriaren aurrean mitoaren zentralitatea bestelako irtenbide bat topatzeko ahalegin moduan: DE PAOLA, Gregorio: «Georges Sorel, de la metafísica al mito» in HOBBSAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*-3. lib.: *El marxismo en la época de la II Internacional* (1). Bruguera.artzelona, 1980 [1979], 273., 257. eta batez ere, 263-278. orr.

[86] Coleren arabera, 1896an proposatu zen lehen aldiz halako komite bat ezartzea, baina ez zen akordiorik lortu, nahiz eta 1896ko bilera horretan Londres ezarri Internazionalaren egoitza moduan. COLE, G. D. H.: *Historia del pensamiento socialista*-3. lib.: *La Segunda...* *op. cit.*, 43-44. orr. Krivoguzen arabera, Jules Guesde frantziarrak 1891ko Biltzarrean II. Internazionalaren Kontseilu Nagusi bat sortzea proposatu zuen, baina Engels kontra agertu zen, momentu horretan halako organo bat sortzeak posibilitei on egingo zielakoan. Arestian aipatu duguna baieztatzen du horrek: frantziarren II. Internazionalaren gaineko ikuspegia «nazioarteko alderdi sozialistatik» gertu zegoen, alemaniarrek, ordea, nahiago zuten «alderdi sozialisten arteko nazioarteko federazioaren» ikuspegia. KRIVOGUZ, Igor: *op. cit.*, 103-104. orr.

[87] MERKER, Nicolao: *op. cit.*, 5. orr.

Argitalpena
2023KO URTARRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia




arteka